ARRASATE: EMAKUMEEN KONTRAKO ERASOAK SALATU DITUZTE /4

Goienkaria

EGUAZTENA • 2004ko apirilaren 7a • IV. urtea • 151. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

IRATI ARANTZABAL / ETXERAT-EKO KIDEA
"PSOErekin ez dirudi dispertsioa amaituko denik, baina gu, hala ere, gure senideekin egongo gara" /7

Goienka2a
'Iparraldea bertan' kultura eskaintza Debagoienean

'GOIENKARIA'-REKIN: EUSKAL HERRIKO ITZULIAREN INFORMAZIO OSOA

Asteburu gaueko autobus zerbitzua areagotu egin dute

Areagotu egin dira asteburuetan, gauez, Eibar eta Eskoriatza bitartean egiten diren autobus zerbitzuak. Aldiz, desagertu egin da Eibartik Gasteizera gauez joaten zena. Joan zen astean onartu zituen aldaketak Gipuzkoako Foru Aldundiak, autobus konpainiekin zerbitzu berriak adostu eta gero.

Joan zen zapatuan jarri zuten abian asteburuetako gaueko autobus zerbitzu berria. Orain arte moduan, neguko ordutegian zapatuetan ibiliko dira autobusak eta udan egubakoitzetan ere ibiliko dira. Hortaz, udako ordutegian, autobus gehiago izango dira gauez. Debagoienean, hiru lineatan banatu dute zerbitzua. /4

BERGARA

Bergara Aurrerak Udalean ordezkatuta egotea eskatu du

Azken udal hauteskundeetan udalbatzatik kanpo geratu izana salatzeko idatzia aurkeztu zuen Bergara Aurrera taldeak martitzenean, udaletxean. Guztira, 368 herritarren eta 20 talderen atxikimendua jaso dute. Besteak beste, plataformari dagokion ordezkaritza politikoa aitortzea eskatu dute Bergarako herri plataformako kideek. /5

ARRASATE

Txus Goikoetxea presoa hiru aste gose greban

Txus Goikoetxea preso mondragoetarrak hiru aste baino gehiago daramatza gose greban, Albaceteko kartzelan dauden preso politikoen bizi baldintzen alde. Besteak beste eskatu nahi dute astean behin deitu ahal izatea telefonoz (orain hilean behin dei dezakete). Preso arrasatear honek zortzi kilo galdu ditu dagoeneko. /5

ASTEKO GAIA: ASTE SANTUKO OPORRAK DEBAGOIENEAN /3

Ibarreko turismo eskaintza oporretan

Oñati, Arantzazu eta Bergarako (argazkian) turismo bulegoak zabalik izango dira Aste Santuan EDU MENDIBIL

Datorren astean GOIENKARIArik ez da argitaratuko

Aste Santuko oporrak direla-eta, datorren astean, hilaren 16an, ez da argitaratuko GOIENKARIA. *Asteleheneko Goienkaria* ere ez da argitaratuko datorren astelehenean. Hurrengoak honako egunotan banatuko dira: 19an astelehenekoa eta 23an bestea.

DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/6 • KIROLA/8-12 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • ZERBITZUAK/21

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ren harpidedun. Egin zaitez zu ere!

XABIER SARASUA |
ZINEGOTZIA (ARALAR), ARETXABALETA

"Ibarrean asteburuan zer gertatu den jasotzen du, eta asteak ekarriko duena aurreratzen du. Kalitatezkoa, plurala, irakurterraza eta, gainera, euskaraz. Bertako berbak eta sintaxia bakarrik falta ditu".

AINHOA ARBELAITZ |
OSINTXUKO LIBURUTEGIA, BERGARA

"Asteburuko notiziak berehala jasotzeko aukera dugu, eta euskaraz. Inguruan euskaraz lor dezakegun aldizkari bakarra da, *Berria* egunkariaz gain. Liburutegian oso harrera ona izan du".

INAZIO BELDARRAIN |
AZPEITXI JATETXEA, BERGARA

"Asteburuetan, jakina, lan egiten dugu, eta askotan, ez gara enteratzen zer gertatzen den. *Asteleheneko Goienkaria*-k dena jasotzen du. Gainera, bezeroek ere pozik irakurtzen dute, eta eskatzen dute".

IDOIA UBERA |
IRAKASLEA, ELGETA

"Agian, ez daukagu euskaraz irakurtzeko ohiturarik, eta liburu baten aldean, askoz errazago irakurtzen da bertako aldizkaria. Urrutiko notiziak berehala heltzen dira, eta honek, hemengoak dakartza".



AITOR URIARTE |
ABESLARIA, OÑATI

"Ibarrean ere asteburuetan izaten dira musika, kirola eta bestelako ekitaldiak, eta interesgarria iruditzen zait horiek azkar eta sakon jasotzea. Beste komunikabide batzuek urrutira begiratzen dute".

ALAIN ULAZIA |
AEK EUSKALTEGIA, BERGARA

"Asteburuari gainbegirada botatzeko eguna da astelehena, eta berripaper honetan herrian biharamuneko kontuak oso gustura hartuko direlakoan nago. Beti dago jakiteko zerbait: kirolak, kontzertuak...".

JOSE ANJEL ARBULU |
ODOL EMAILEEN ELKARTEA, ANTZUOLA

"Oso erraz irakurtzen da *Asteleheneko Goienkaria*. Euskaraz dator, baina euskara errazean. Asteburuko notiziak kontatzen ditu, eta astean zer gertatuko den ere aurreratzen digu. Pozik irakurtzen dut".

GORKA ELORTZA |
ALBAITARIA, BERGARA

"*Asteleheneko Goienkaria* eman beharreko beste pauso bat da, pauso garrantzitsua, gainera. Bertako notiziak euskaraz jasotzeari balio handia ematen diot. Hemengo aldizkaria da, guztiona".

JUAN MARI ARANTZETA |
MASAJISTA, ELGETA

"Egubakoitzetan banatzen den GOIENKARIA asko gustatzen zait, eta berehala harpidetu nintzen *Asteleheneko Goienkaria* etxean jasotzeko. Asteburuko gertaerak dakartza, eta oso ondo dago".

UNAI LAZKANO |
IRATI TABERNA, ARRASATE

"Egubakoitzetakoa oso zaharkitua gelditzen da gai askotan, eta honek asteburuko gertaerak fresko-fresko jasotzen ditu, kiroletakoak, esaterako. Tabernan bi ale jasotzen ditugu, eta biak okupatuta egoten dira".

MARIJE ZABALA |
IRAKASLEA, ESKORIATZA

"Euskaraz irakurtzeko aukera eskaintzen du. Gainetik, Debagoienean asteburuan gertatu diren notizien eta antolatu diren ekitaldien berri ematen digu, eta asteak ekarriko duena aurreratzen du".

ANTONIO OSA |
ERRETIRATUA, ARETXABALETA

"*Asteleheneko Goienkaria*-k ere herriko eta ibarreko gainontzeko herrietako notiziak ekartzen ditu, argazki askorekin ilustratuta, gainera. Erraz irakurtzeko moduan jasotzen ditu gertaerak".

IBAN ONANDIA |
GOZOGILEA, ARRASATE

"Agian, kultura eta kirolaz gain, bestelako gaiak ere ekarri beharko lituzke, udalek hartzen dituzten erabakiak, esaterako. Eguraldiaren iragarpena ere oso ondo dator, ze arropa janzteko laguntzen du-eta".



ASENSIO LASKURAIN |
ERRETIRATUA, ANTZUOLA

"Niri asko gustatzen zait *Asteleheneko Goienkaria*, baita egubakoitzetako GOIENKARIA ere. Herriko eta Debagoien osoko notiziak jasotzen dituzte biek, astekoak eta asteburukoak. Biak irakurtzen ditut".

MARI KARMEN TELLERIA |
GAROA TABERNA, OÑATI

"Euskararen alde egiten den dena ondo dago. Euskal prentsan hutsunea zegoen astelehenetan, *Berria* ez delako kaleratzen, eta *Asteleheneko Goienkaria*-k, hemengoak, hutsune hori betetzen du".

Astekoak

Evaristoren gatillazoa

Euskal Herriko Txirrindularitza Itzulia hizpide da azken egunotan. Bergaran hasi da aurten eta txirrindulari onenak ondo-ondotik ikusteko aukera izan dute zaleek. Eskuetan daukazun ale honetan bezala, ***Asteleheneko Goienkaria***-n ere sakon jorratu zuten txirrindulari karrera prestigiotsuarena. **La Boulangere** taldekoek **Arantzazun** ostatu egin zutela-eta, afaltzen harrapatu zituzten erredakzio taldekoek eta azalean ipini zuten: **Joseba** eta **Gorka Beloki** ageri dira argazkian, azken hau argazkilariari agur egiten.

Joseba Beloki izan zen astelehenean, itzuliaren aurkezpenean, zaleek gehien txalotu zutenetakoa, **Mayo** eta **Odriozola** oñatiarrarekin batera. Lazkaokoa pozik ikusi genuen etapa hasi aurrekoan. Gero, kaminoan, larri ikusi genuen, **Gorla** eta batez ere **Deskarga** igotzen. Azkenean agur esan zion Legazpira bidean. Lastima! Ea Tourrean sasoitsu eta aurrean ikusten dugun.

Baina txirrindulariak ez dira izan *Asteleheneko Goienkaria*-ren protagonista bakarrak. Izan da beste bat: **Evaristo**, **La Polla** bertan behera laga ondoren, **Gatillazo**rekin oraingoan. Jamen izan zen zapatuan talde berria aurkezten. Oñatin bizi da azken urteotan eta Aguraingo eta Debagoieneko lagunez osatu du taldea. Inguru guztietatik hurbildu ziren Bergarara Gatillazo ikustera, baita Galiziatik ere. Izan ere, **Celta** futbol taldeko **Celtarras** lagunarteko bi kideri elkartasuna adierazteko antolatu zuten kontzertua. **Eneida Iturbe**ren kronikan irakur daitekeenez, aretoa ia bete eta primeran igaro zuten ikus-entzuleek.

La Pollako Evaristok talde berria aurkeztu zuen Jamen; jendea gustura ibili zen

Debagoiena hobeto ezagutzeko aukera Aste Santuko oporretan

Mankomunitateak hainbat turismo eskaintza ditu egunotarako

USOA AGIRRE

Jende askok kanpora alde egingo du Aste Santuko jaiegunetan, baina bertan gelditzen direnendako ere badago aukera ugari gure ibarrean. Debagoieneko Mankomunitateak eta turismo bulegoek Aste Santurako hainbat ekintza antolatu dituzte, bai kanpotik datozenendako, baita bertakoendako ere. Oñatiko turismo bulegoak, adibidez, informazio puntu berri bat inprobisatuko du unibertsitatean, apirilaren 8an, 9an eta 10ean. Euro baten truke, nahi duenak unibertsitateko klaustroa bisitatzeko aukera izango du. Bertan, konderriaren eta unibertsitatearen sorreraren gaineko azalpenak emango dituzte. Goizez, 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik unibertsitatea eta ordu erdiro egin ahal izango dira bisitak.

Bestalde, apirilaren 8tik 12ra Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitate zaharrera eta Mikel deunaren elizara bisita gidatuak egingo dituzte eguerdiko 12:00etan, bi euroren truke. Bergaran ere egingo dituzte bisita gidatuak herriko gune historikoa ezagutzeko. 45 minutuko bisitak izango dira, doanekoak.

GOIENKARIA

Urkuluko urtegia bisita daiteke Mankomunitateak proposatzen dituen ibilbideetako batean.

INFORMAZIO PUNTUA ARANTZAZUN

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere informazio puntu turistikoa jarri du Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Ekintzetarako Sailak Arantzazun. Puntu horren helburua da Arantzazura joaten direnei gonbita egitea Debagoieneko herriak ere ezagutu ditzaten. Horretarako, ibarreko herrietako informazio ugari eskaintzen dute puntu horretan. Izan ere, kanpoko jende asko erakartzen du Arantzazuko santutegiak, baina gehienek santutegia besterik ez dute bisitatzen eta ibarreko herriak ezagutu gabe joaten dira. Joan den apirilaren 3an ireki zuten gune hori eta 18ra arte izango da zabalik.

MENDI IBILALDIAK

Museo eta jauregiez gain, gure ibarrak badu bestelako erakargarritasunik ere; ingurunea. Debagoieneko Mankomunitateak hainbat ibilaldi proposatzen dizkigu, ibarreko herri ezberdinetako mendi eta inguruak ezagutzeko. Ibilbide guztiak ondo seinaleztatuta daude, baina informazio zehatza jakiteko turismo bulegoetan eskuratu daitezke ibilbideen mapak. Hamasei ibilaldi daude guztira, hona hemen horietako batzuk: Bergaran, tumuluen xenda ; Elgetan, Intxortatik Asentziorako ibilbidea; Antzuolan, Uzarraga, Galartza, Lizarraga eta Irimoegi goena ezagutzeko ibilbideak; Arrasaten, Udala eta Besaide arteko ibilbidea; Aretxabaletan, Oro, Larrino-Urkuluko urtegia eta Aozaratza arteko ibilbidea; Eskoriatzan, Bolibar elizateko ibilbidea; Oñatin, Araotz, uraren ibilbidea; eta, Gatzagan, Hiruerreketako ibilbidea.

Hiru museo ikusteko

Debagoienean baditugu hiru museo, ibarreko historia ondo baino hobeto gordetzen dutenak: Arrasateko industria erakusketa, Eskoriatzako museo eskola eta Gatzagako gatz museoa. Urte guztian dugu museo horiek bisitatzeko aukera, baina opor garaian kanpora joateko grina piztu egiten zaigunez, Aste Santua garai egokia da museo horietara bisitatxo bat egiteko.

Arrasateko industria erakusketak eskulangintzako gizarte hartatik hasi eta gaur egungo teknologia mundurainoko prozesua erakusten digu. Zerrajerako eraikin nagusiaren aretoan dago erakusketa, baina bisita gidatuendako bakarrik dago zabalik. Eskoriatzako museo eskolan zentzumen guztiak erabiltzea proposatzen dute, gure historia hobeto ezagutzeko. Domeketan egoten da zabalik; astean zehar joateko aurretik eskatu behar da ordua. Gatzagako museoan mendetan zehar herriko bizigarria izan zen gatz industriaren berri jakiteko aukera dago. Aste Santuan egunero egingo dituzte bisita gidatuak.

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Debagoiena ezagutzera emateko informazio gunea Arantzazun

Debagoieneko Mankomunitateak Arantzazuko Informazio Puntu Turistikoa jartzen du Aste Santuan eta Udan, Arantzazura joaten direnei Debagoieneko beste gune interesgarrien berri emateko.

Apirilaren 18ra arte egongo da zabalik. Goizez 10:30etik 14:00etara eta arratsaldez 15:30etik 18:30era.

LEINTZ GATZAGA

Gatz Museoa eta Dorletako Santutegia bisitatzeko aukera

Gatzagako turismo bulegoa goizez bakarrik egongo da zabalik Aste Santuan, 12:00etatik 14:00etara.

Gatz Museoan egunero egingo dituzte bisita gidatuak apirilaren 8tik 11ra bitartean. Mendi ibilaldiak egiteko aukera ere badago Gatzagan, baina horretarako aurretik eskatu behar da ordua turismo bulegoan.

BERGARA

Bisita gidatuak herriko gune historikoan zehar

Apirilaren 8an, 9an eta 10ean 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era izango da zabalik turismo bulegoa. Apirilaren 11n eta 12an, berriz, goizez: 11:30etik 14:30era.

Bisita gidatuak egiten dituzte herriko gune historikoa ezagutzeko: hiru elizak, jauregiak, eta udaletxeko areto nagusia, besteak beste.

OÑATI

Beste informazio puntu bat jarriko dute unibertsitatean

8an, 9an eta 10ean beste informazio puntu bat jarriko dute unibertsitatean. Klaustroko ateak zabalduko dituzte, nahi duenak bisita dezan.

Bestalde, Aste Santuko egun guztietan Sancti Spiritus Unibertsitate zaharrera eta Mikel Deunaren elizara bisita gidatuak egingo dituzte, eguerdiko 12:00etan.

GOIENKARIA

Udaberriarekin batera, Pesak autobus gehiago eskaintzen ditu gauez joan zen zapatua ezkero.

Gaueko autobus zerbitzua areagotu egin du Pesak, udaberriarekin batera

Eibar-Arrasate, Arrasate-Eskoriatza eta Oñati Eskoriatza dira lineak

NEREA ZUBIETE

Areagotu egin dira asteburuetan, gauez, Eibar eta Eskoriatza bitartean egiten diren autobus zerbitzuak. Aldiz, desagertu da Eibartik Gasteizera gauez joaten zena. Aste honetan onartu ditu aldaketak Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako eskualdeetan asteburuetako gaueko zerbitzua egiten duten autobus konpainiekin zerbitzu berriak adostu eta gero.

Joan zen zapatuan jarri zuten abian asteburuetako gaueko autobus zerbitzu berria. Orain arte moduan, neguko ordutegian zapatuetan ibiliko dira autobusak eta udan egubakoitzetan ere ibiliko dira. Hortaz, udako ordutegian, autobus gehiago izango dira gauez.

Debagoienari dagokionez, orain arte Pesa Konpainiak Eibartik Eskoriatzarainoko zerbitzua egiten zuen linea batean eta gero, Arrasatetik abiatzen zen autobus bat Oñatira. Orain, berriz, hiru lineatan banatu du asteburuetako gaueko zerbitzua Pesa autobus enpresak.

HIRU LINEA

Eibartik Arrasatera eta alderantzizkoa da lehen linea. Hor lehenengo autobusak, norabide bietan, gaueko 00:00etan abiatuko dira eta azken zerbitzua goizeko 6etan izango da. Bitartean, orduro abiatuko da autobus bana. Linea honetan, lehen baino bi zerbitzu gehiago daude orain.

Bigarren linea Arrasatetik Eskoriatzara doana da. Gaueko 00:15 aldera aterako dira autobusak Arrasatetik eta Eskoriatzatik eta goizaldeko 6ak aldera izango dira azkenak. Orduro egongo da zerbitzua Arrasate eta Eskoriatza bitartean, goizeko 04:30ean izan ezik. Zerbitzu honetan ere bi zerbitzu gehiago daude orain.

Hiru lineatan banatu dute geurean asteburu gauetan eskaintzen den zerbitzua

Hirugarren linea Oñatitik Eskoriatzara doana da. 00:30ean aterako da lehen autobusa Eskoriatzatik eta azkena goizeko 6etan abiatuko da Oñatitik. Linea honetan, lehen bezala, 3 zerbitzu izango dira.

JAIETAN, GEHIAGO

Gure ibarrean, zapatuetako gaueko zerbitzuak areagotzeaz gainera, Pesa Konpainiak aurreratu du gure inguruko herriko jai batzuetan ere gaueko zerbitzu bereziak jarriko dituela.

Linea horiek finantzatzeko, orain arte bezala, autobus konpainiek bidaiak kobratuko dizkiete erabiltzaileei, baina horretaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza emango die Gipuzkoako zerbitzua egingo duten konpainiei. Horrela, Foru Aldundiak 310.900 euro bideratuko ditu zerbitzu horiek egiten jarraitzeko eta herritarrei, batez ere gazteei, zerbitzua emateko.

Bakoitzak bere aldetik ospatuko du Aberri Eguna

Bi Udalbiltzek ere deialdi bana egin dute domekarako

GOIENKARIA

Indar Politiko abertzale guztiek egin dute Aberri Egunerako deia. Bananduta ospatuko dute, baina, eguna. Bi Udalbiltzek ere deialdi ezberdinak egin dituzte. Bestalde, ELAk autodeterminazioaren aldeko aliantzak behar direla dio Aberri Egunerako argitaratu duen adierazpenean.

Oraingo domekan ospatzen da Aberri Eguna eta aurten ere indar abertzale bakoitzak bere aldetik ospatuko du. Hainbat ekitaldi antolatu dira egun horretarako: EAJk eta EAk kudeatzen duten Udalbiltzak Hondarribian ospatuko du. Beste Udalbiltzak, Batasunaren ingurukoak, ostera, herrietan ospatzera deitu du. Ibarreko herrietan, martitzenera arte, edizio hau ixtera arte, Oñatin bakarrik zehaztuta zuten ospatuko zutela. Eta, deialdia ez zuen Udalak egin, Ereitten plataformak baizik. Domekan eguerdiko 12:00etan egingo dute ekitaldia, herriko plazan: txalaparta, ikurrinari omenaldia, dantzariak eta egunerako prestatutako adierazpenaren irakurketa egingo dituzte.

Bestalde, EAJk Bilbon ospatuko du Aberri eguna; EAk, Gernikan; ABk Ezpeletan eta Nazio Eztabaida guneak Barañainen. Aralarrekoak Ezpeletan eta Barañainen izango dira.

EAJ eta EAren Udalbiltzak Hondarribian ospatuko du Aberri Eguna

Emakumeen kontrako erasoak salatu dituzte

Oraingo astelehenean, kale agerraldia egin zuten Arrasaten, emakumeek jasaten dituzten erasoak eta tratu txarrak salatzeko. Emakume Kontseiluak deitutako ekimena izan zen. Hain zuzen ere, kontseilu horren esanetan, "eraso horiek gorakada nabarmena izan dute, bai kopuruan, baita larritasunean ere. Edonon gertatzen dira". Hala, uste dute salatu egin behar direla eta herritar guztien inplikazioa eskatzen dute. Asmoa da aurrera begira halako gehiago egitea. /UBANE MADERA

MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Carrión música, s.a.
• Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
• Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.
Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

PREVISORA BILBAINA
ASEGURUAK
Osasun zerbitzuen eskaintza zabala barne duen HERIOTZA-ASEGURU bakarra.
Hitzartutako mediku, dentista, optika-kate eta bainuetxeetan DESKONTUAK
Zerrajera kalea 4, 1.
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 19

ANTZUOLA

Aurrekontua onartu du udalbatzarrak: 2.585.797 euro

Aurreko asteko egubakoitzean egin zuen apirileko osoko bilkura udalbatzarrak; hantxe, 2004ko aurrekontua onartu zuten: 2.585.797 euro, hain zuzen ere; iazkoaren alderatuta, %6,7 egin du behera aurrekontuak.

Aurrekontuaren %23,9 inbertsioetara bideratuko dute, 619.868 euro, hain justu. Ohi bezala, Etxebizitza eta Hirigintza batzordeak izango du aurrekontu handien eta hortxe egingo dituzte inbertsio handienak ere: 336.314 euro inbertituko dituzte batzorde horretan. /A.I.

U.M.

ARRASATE

Hiru aste pasatxo gose greban euren bizi baldintzen alde

Txus Goikoetxea preso mondragoetarrak hiru aste baino gehiago daramatza gose greban, Albaceteko kartzelan dauden preso politikoen bizi baldintzen alde. Azkeneko astean, beste preso bat gehitu zaio protestaldian. Hiru eskaera egin dizkiote kartzelako zuzendariari: astean behin deitu ahal izatea telefonoz (orain hilean behin dei dezakete); bisitak egiten dieten hamar lagunen taldea hiru hilean behin aldatzea, eta ez sei hilean behin, orain bezala; eta Albaceten dauden preso politikoak modulu bakarrean elkartzea (orain bakartuta daude). Hain zuzen ere, azken hori ez du onartzen kartzelako zuzendariak. Hala, bi presoek erabaki dute aurrera egitea gose greban, eta gainera, eten egin dituzte medikuaren bisitak. Arrasatearrak zortzi kilo galdu ditu dagoeneko. /U.M.

ARETXABALETA

Ibarreko Dantzari Eguna ospatuko dute herrian apirilaren 25ean

Ibarrean egiten den Dantzari Eguna aurten Aretxabaletan ospatuko dute. Apirilaren 25ean izango da, domeka, eta ibarreko hainbat herritatik hurreratuko dira dantzariak gurera: Arrasatetik, Oñatitik, Antzuolatik eta Bergaratik.

Aurten, gainera, iparraldeko talde bat ere etorriko da: Dantza Piko, hain zuzen. Mankomunitateak antolatutako *Iparraldea bertan* programaren barruko ekitaldia izango da, eta Iparraldeko dantzen berri izateko aukera bikaina izango dugu. /M.A.

ARAMAIO

Aramaioko I. Gazte Egunaren ospakizunerako guztia gertu dago

Aramaioarrek guztia gertu dute I. Gazte Egunera joango direnendako. Datorren barikuan izango da, hilak 16. Hala, arratsaldean hasiko da jaia, 18:30ean, bertso-triki txikiteoarekin. Gero, 22:00etan hasiko dira kontzertuak, kiroldegian. Bost taldek jardungo dute: Maeria, Biok, Ataka, Sakre eta Sharon Stoner taldeek. Eta ez da hor bukatuko jaia. Izan ere, kontzertuen ostean, DJen txanda izango da. *Karkass* eta Gorka ibiliko dira jendea girotzen. Horri guztiari laguntzen, pare bat taberna ipiniko dituzte herriko kiroldegian. /U.M.

OÑATI

Udaleku irekietarako matrikula Aste Santuan zabalduko dute

Datorren zapatuan, apirilak 10, zabalduko da epea udaleku irekietan matrikulatzeko. Eta apirilaren 25ean amaituko da epea.

Uztailean izango dira udaleku irekiak, eta bertan parte hartu nahi duten gaztetxo guztiek eman dezakete izena, epe horren barruan. Herriko ikastetxe guztietako haurrei eskainita izango dira udalekuak. Hauetan parte hartzeko, Euskadiko Kutxan egin behar dute ordainketa, eta datuak jasotzen dituen inskripzio-orria bete eta entregatu beharko dute.

Bestalde, udaleku irekietan begirale izan nahi duenarentzat ere apirilean da izena emateko epea. Hain zuzen ere, hil honen 15etik 25era egongo da zabalik epea, eta udaletxeko lehenengo solairuan egongo den koordinatzaileari eman behar zaizkio datuak. Martitzenetik zapatura bitartean egongo da koordinatzailea, 10:00etatik 13:30era bitartean.

UEU-KO IKASTAROENDAKO BEKAK

Euskara batzordeak proposatuta, Oñatiko Udalak Udako Euskal Unibertsitateak uztailean antolatzen dituen ikastaroendako dirulaguntzak ematea onartu du. Laguntza hauek ikasle eta langabeendako dira, eta ikastaroen matrikula ordaintzeko izango dira, ez egoitza gastuak ordaintzeko. Horrez gain, Oñatin erroldatua egotea eskatzen du Udalak, eta ikasten edo langabezian dagoen agiria. Baita matrikula agiria ere.

UEUk antolatutako ikastaroak uztailean izango dira, Iruñean./O.E.

Zertzelada

Udaleku irekietan parte hartu nahi duten gaztetxo zein begiraleentzat, apirilean da izena emateko epea

BERGARA

Bergara Aurrerak udalbatzan dagokion ordezkaritza eskatu du

Udalbatzatik kanpo geratu izana salatzeko idatzia aurkeztu zuen Bergara Aurrera taldeak martitzenean, udaletxean. Guztira, 368 herritarren eta 22 talderen atxikimendua jaso dute. LAB, Ikasle Abertzaleak, Udaleko enpresa komitea, Segi, EHE, EPA, ESK, Bai Euskal Herriari, Askatasuna, Etxerat, Gazte Asanblada, Txapa Irratia, Astindu, Lokatza, Zutik, Komite Internazionalistak, BEKE, Elkarlana, Haurtxoa haurtzaindegia, Mendia Bizirik, EHNE eta Angiozarko Batzarrak egin dute bat Bergara Aurrera taldearekin. Besteak beste, plataformari dagokion ordezkaritza politikoa aitortzea eskatu dute./E.M.



EDU MENDIBIL

Jasotako atxikimenduak aurkeztu zituzten martitzenean, udaletxean.

ESKORIATZA

Autobidearen eraginak jasango dituztenen koordinadora

Autobidearen eraginak jasango dituzten hainbat eskoriatzarrek elkartekoordinadora bat osatu dute. Beraien ustez administrazioak gaiari buruz egiten duen manipulazioa eta desinformazioa salatu gura dute. "Hasierako proiektuak aldaketak izan ditu. Aldi baterako lurren okupazio berriak ematen hasi dira; autobidea herritik oso gertu pasatuko da, eta ez dugu ulertzen horrek sortuko dituen kalteak txikitzeko neurririk ez hartzea". Horrekin batera, alegazio epea luzatu egin gura dute. /Z.V.M.

ELGETA

Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia Elgetan izango da 2005eko ekainean

Elgetan izango da 2005eko ekainean Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia, eta Guraso Elkartekoak jadanik hasiak dira jai honetarako prestaketa lanetan. Besteak beste, jaiaren adierazgarri izango den logotipoa egin nahi dute lehenbailehen, horren ondoren kamisetak atera ahal izateko. Kamiseten salmentarekin jaia antolatzeko dirua lortzea da helburua. Bestalde, Udaleko eta elkarteetako ordezkariekin elkartuko dira, elgetarren laguntza ezinbestekoa baita jaia antolatzeko. /I.A.

GATZAGA

Ibarreko eta Iparraldeko kulturak hobeto ezagutzeko aukera

Iparraldea bertan ekitaldi sorta antolatu dute Debagoienean, apirilaren 21etik maiatzaren 2ra. Ibarreko eta Iparraldeko kulturek elkar ezagutzeko aukera eskaini gura duen egitasmo horren barruan, herrian ere egongo da zer egin: alde batetik, *Euskal Herriko aurpegiak* izena duen ukipen pantaila ezarriko dute hilaren 21etik 27ra Garro jauregian; eta, bestetik, apirilaren 21ean, Iparraldetik etorritako bi kidek egitasmoaren nondik norakoak azalduko dizkiete herritarrei. /Z.V.M

Gutunak

Alcala-emakumeak espetxean emandako bizipenak

M11: Goizean goizetik hasi zen giroa berotzen eta momentuan jakin genuen arazoak izango genituela. Goizeko 11.00ak aldera hasi zirren arruntak elkartzen, gu mehatxatzen, iraintzen etab. Modulu guztietako burdinazko barrotedun ateak zabalik mantendu zituen kartzelak, honela modulu guztietako jendea (6 modulu daude guztira espetxean) euskal preso politikoak gauden 2 modulutara etor zitezkeen gurekin sartzera.

Enkartelada antzeko bat egin zuten gu gauden bi modulutan. Irainak, mehatxuak... bertan parte hartu zuten kartzelako "edukadora" eta argazkilaritzako monitoreak. Jendeak eskoba makilak zituen eta kartzelako "langileriaren" babes guztia zutela ikusirik, enkartelada oso gogorra burutu zuten gugandik 5 metrotara (gu jartzen garen mahaitik 5 metrotara).

Bazkal orduan arazoak gehitu ziren. Ez ziguten janaria zerbitzatu nahi, janaria bota ziguten... hau guztiau 5-6 kartzelari, zerbitzuburua eta segurtasuneko zuzendariordearen aurrean gertatu zen.

Arratsaldean modulu bateko kide guztiak kiroldegira joan ziren bi kide eta Grapokide bat jipoitu zituzten (50 bat pertsonen artean edo). Polarrak, gerrikoak, walkmana...lapurtu zizkiguten. Garbitokira bidalitako arropa lapurtu digute, poltsek lurrean pasa zuten egun osoa eta.

Hau guztia kartzelarien begien aurrean gertatu zen. Ondoren, arrunt batzuk kontatu zigutenez, kartzelari batzuk lasai ibiltzeko esan omen zieten, edozer gertatuta ere ez zietela kartzela zigorrik jarriko eta.

Isolamenduko modulura eraman gintuzten kartzelan geunden 16 euskal preso politikoak eta bi Grapokideak. "Teorian" gu babesteko erabili zuten neurri hau. (Kontutan hartu behar da beste espetxeetan goizean goizetik txapatu zituztela kideak eta gu jipoitu gintuzten arte ez gintuztela isolamendura eraman.

Bertan, medikuaren jarrera guztiz salagarria iruditu zitzaigun. Jipoi osteko kolpe, zauri, zein burusoilei kasu eskasa egin zien.

Astelehen goizaldera arte egon ginen isolamendu moduluan, 75.2 artikuluarekin.

Asteburuan bisiten orduak aldatuko zizkigutela esan ziguten (ostiral arratsaldean). Normalean bisiten zerrendak jartzen dituzte modulutan. Izena, abizenak eta bisita ordua ageri dira bertan normalean. Asteburu hartako orrietan, Izena, abizenak (grupo ETA), senideen izen guztiak eta beraien DNI zenbakiak ere jarri zituzten. Hau modulutan jarri zuten eta arruntak etorri ziren isolamenduko atera mehatxatzera. Gure senideen datu guztiak zituztela eta hilko zituztela esanez.

Astelehenean goiz erdi partean gure modulutara eraman gintuzten. Eguerdi partean izan genuen lehen mobida arrunt batzuekin. Kartzelari askoz gain zerbitzuburua ere bertan zegoenez, ez ginen joka hasi, gutxi falta izan zitzaigun arren.

Giroak bero-bero jarraitzen zuen. Kartzelak horrela nahi zuelako, noski. Modulu bateko psikologoak guk arrunta guztiak banan-banan jipoituko genituela esan zien, eta honek psikosia sortu zuen modulutan.

Berriz ere borroka egon zen ostiralean (martxoak 19) eta modulu bateko kide guztiak isolamendura bueltatu zituzten.

Bi kideri 10. artikulua ezarri eta Avilara eramango dituzte. Beste bi kide ere beste kartzela batetara eramango dituztela jakin dugu. Ez dakigu, ordea, nola eta nora. Lau kide hauei 20 minutu besterik ez zieten utzi beren gauzak jaso ahal izateko, eta oraindik isolamenduan jarraitzen dute. Arazo gehien zeudeneko moduluko kideak aldatu dituzte: 4 beste espetxe batera eta beste 5ak beste modulu batera. Lasaiagoa den moduluan 9 preso politiko daude une honetan. 5 preso bakarrik ekarri gaituzte arazoak dauden modulura.

Modulu aldaketa gaueko 20,30etatik aurrera egin ziguten eta gaueko 23,00ak arte luzatu zen gutxi gora behera. Dozenaka kartzelari, zerbitzuburuak... oso jarrera bortitzaz guztiek ere animaliak bagina bezala tratatu gintuzten. (Gaueko 21,30etatik aurrera, zenbaketaren ostean, modulu aldaketa egitea legala ez delakoan gaude gainera).

Bi aste luze pasa dira M11-tik eta oraindik ere giroa ez da guztiz lasaitu. Mehatxatzen gaituen jendearen ondoan jarri gaituzte, jipoitu gaituztenek ez dute parte bat bera ere jaso eta kartzelarien babes osoa izan dute gainera.

Miaketa egin eta puntua egiteko orratzak, artaziak etab. Kendu zizkiguten. Hau ere gure segurtasunerako omen zen. Ez dizkigute gure gauzak bueltatu. Eta arruntei ez diete ezer kendu, gure alde egin zuen bati soilik.

Honekin guztiarekin, irakurketa argi bat egin dugu:

1. Kartzelak hasieratik bultzatu zuen gu jipoituak, mehatxatuak eta irainduak izatea.

2. Aitzakia honekin eskubide murrizketa eta trasladoak burutu dituzte.

3. Konponbide bat jarri ordez, kide aldaketa egin dute modulutan arazo gehienak egon diren modulura 5 kide ekarriz (beti orekatuta egon garen arren, orain 9-5 gaude).

4. Kartzelak ardura zuzena du gertatu zaigun eta gerta dakigukeen edozer gauzetan. Bai segurtasun zuzendariordea, baita kartzelako zuzendaria ere, erantzule zuzen egiten ditugu.

5. Ikastaroak utzi behar izan ditugu, bertara joateak suposatzen duen arriskuagatik eta dagoen giroagatik.

6. Ibarretxek, Aralarrek... M11an gertatutakoaz egin bezalako adierazpenek bultzatzen eta justifikatzen dituzte gure aurkako eraso guztiak. (Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu jasotako jipoi, mehatxu eta irain guztiengatik).

GARAZI BITERI
ETA BESTE 13 EMAKUME PRESO
Alcala

Mirari kontuak

Agur Euskadi. Aita Santuak esan berri die katolikoei gudua nahi duela islamiarren aurka. Ez dakigu eraso egingo ote dituen arabiarrek iberiar hegoaldetik estatu espainiarra, baina bai dakiguna da hemen Euskadin gazte gutxi dela.

Gurutzadak agian 700 urte barru izan daitezke aldaketa klimatikoa txerri osasuntsuak jateko gaitasuna ematen duenean. Alacanteko espetxe psikiatrikotik idazten dizuet. Eta psikiatrak ez du onartu euskaraz jardutea eskubide bat dela. Beraz, Euskadi, psikiatra, euskal hiztun bat dakarzu hona. Nik ikusi ditut nahita eginiko mirariak, inoiz ahantziko ez ditudanak, minutu eta erdi batekoak, bost. Minutukoak eta milaka ahots, zuenak, mirariak ere. Preso kideek ere ikus eta entzun izan dute. Mundu guztian iruditzen zait zentzuduna telebista, irratia, disko trinkoa eta kasetea debekatzea, eta horren gainean zenbait artikulu idatzi ditut.

Antzina herria hitzaz ulertzen ginen. Gero dator nazioa erdal mailegua, orain EAEko estatu askatua? Amore ematea bada lurraldetasunari? Bozka ez tronpatu Genevarekin. Agur Euskadi.

JON OTERO URIBARREN
Alacant

Beroako etxebizitzen erosleei

Aretxabaletako Beroa gunean etxebizitzaren bat erosi dutenei jakinarazi, apirilaren 19an, 19:00etan, bilera egingo dela Aretxabaletako Udaletxeko ganbaran. Azken egunetan emandako pausuen berri emango da bileran, eta aurrerantzean zer egin erabakiko da. Beroako etxeak saldu dituen promotorearekin dauden desadostasunen inguruan egingo da berba.

BEROAKO BIZILAGUN BATZUK
Debagoiena

A-1 autobidea: ikaragarrizko eragina Eskoriatzan

Pasa den hilaren amaieran, Arlaban-Eskoriatza iparraldea tarteari dagokion Eibar-Gasteiz autobidearen eraikitze proiektua jaso zen Eskoriatzako Udaletxean. Aipatutako proiektuarekin batera, kaltetutako lurjabeen zerrenda eta autobideak lurren desjabetzetan izango duen eragina batzen duen dokumentua ere bidali zuten.

Eraikitze Proiektua eta dokumentuak aztertuta eta bere garaian ingurumen eragina neurtzeko tramitatu zen ibilbide proiektuarekin alderatuta funtsezko aldaketak sartu direla ondorioztatu da. Behin betiko okupazioen gehikuntza nabaria da, aldi baterako okupazio berriak azaltzen dira, aurretik ez aurreikusitako zortasunak, etab. Aldaketa berrien inpaktuen azterketarik ez da egin eta inpaktuak ekiditeko neurrietan ere hutsune larriak sumatu dira.

Argi dago Eskoriatzako kasuan autopistak eragin itzela izango duela, bai lurren jabe direnentzat eta baita herritarrentzat ere. Autopista herritik oso gertu kokatzen denez, argi dago kalteak nabariak izango direla (ikus-inpaktua, zaratak) batez ere Intxaurtxueta, San Pedro, Santa Ana, Apotzaga, Mazmela, Zarimutz eta Marin auzoetan. Ez da ulertzen herri gunetik hain gertu kokatzen den hirugarren belaunaldiko autopista batetan, honek sortuko dituen kalteak ekidin eta gutxitzeko neurririk hartu ez izana (zarataren kontrako pantaila bakar bat ere ez dute planteatzen).

Arazo honen guztiaren gainean administrazioak egiten duen manipulazioa eta informaziorik eza salatzeko, kaltetuek, lurjabe nahiz herritarrek, Elkarte-Koordinadora bat osatu dugu.

Dagoeneko alegazio epea zabalik dago, hilaren 26ra arte. Proiektuaren tamaina itzela ikusita eta udaletxera oraintsu iritsi dela kontutan hartuta, taldeak behar-beharrezkoa ikusten du alegazio epea luzatzea.

JABIER VILLAR, AUTOBIDEAK KALTETUTAKOEN TALDEKO ORDEZKARIA
Eskoriatza

Aste Santuko oporrak

Goiena Komunikazio Zerbitzuetako prentsa taldeko kideek oporrak hartuko ditugu Aste Santuan. Hori dela-eta, GOIENKARIA eta herri aldizkariak ez dira argitaratuko hilaren 16an. Hurrengo zenbakia 23an kaleratuko dugu.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Debagoieneko 31 preso politikoak Euskal Herritik kanpoko espetxeetan daude. Bostek beteta dituzte hiru laurdenak. Sakabanaketa inoiz baino handiagoa da, eta azkenaldian presoen eta senideen egoerak okerrera egin du.

OIHANA ELORZA

Irati Arantzabal

DEBAGOIENEKO ETXERAT

"PSOErekin ez dirudi dispertsioa amaituko denik, baina gu gure senideekin egongo gara"

M-11KO ATENTATUAREN ONDORIOAK

"Presoek erasoak eta mehatxuak jasan dituzte, senideekiko jarrera gogortu egin da, eta eskubide asko murriztu egin dizkiete senide presoei"

ALDERDI POLITIKOEN ERANTZUKIZUNA

"Alderdi politiko guztiek dute erantzukizuna, baina bereziki EAJk. Badirudi gertatzen den guztiak ez duela harekin zerikusirik"

OIHANA ELORZA

Madrilgo atentatuaren ostean, okertu egin da presoen egoera?

Bai, nabarmen okertu ere. Atentatuaren egunean bertan, esaterako, ileetatik tira egin, irainak entzun eta bestelakoak jasan zituzten. Eraso hauek guztiak preso sozialek egin zizkieten, eta funtzionarioen aurrean. Bisita orduak aldatu egin zizkieten, ezer abisatu gabe. Gaizka Azkarate arrasatearrak, adibidez, goizeko 10:30ean zuen bisita, baina segurtasun neurriak zirela eta, 13:00ak arte atzeratu zioten bisita. Gaizkak ez zekien ezer aldaketari buruz, eta bere lagunek istripua izan zutela uste zuen.

Espainiako Estatuan gogortu egin da funtzionarioen jarrera egun hartatik aurrera, baita senideekiko jarrera ere.

Eskubideak ere murriztu egin dizkiete, ezta?

Bai, azken denboraldi honetan eskubide asko murriztu dizkiete. Lehen, senideez gain lagunak ere joan zitezkeen presoak bisitatzera. Orain, ordea, lagunen zerrendak egiten hasi dira. Adibidez, Xabier Ugarte oñatiarrak, Txus Goikoetxea arrasatearrak eta Jose Luis Erostegi antzuolarrak hamar laguneko zerrenda daukate. Sei hilabetean behin alda dezakete zerrenda, eta bitartean lagun horien bisita bakarrik jaso dezakete. Xabin Usandizaga oñatiarrari, berriz, betiko ezarri diote zerrenda hori. Hau da, Badajozko espetxean dagoen bitartean, zerrendak jasotzen dituen hamar lagun horiek baino ezin izango ditu ikusi, senideez gain. Bergarako Xabier Lazkanok 19 izeneko zerrenda dauka.

Bisean bisekoak aste barruan jartzen hasi dira orain, Paulo Elkoro bergararrari eta Antzuolako Jose Luis Erostegi, esaterako. Azken hau Ciudad Realen dago, eta horrek esan nahi du senideak lana utzi egin behar duela bisitara joateko. Honez gain, elkarbizitzako paperek ere ez dute balio. Orain, ezkondu egin behar duzu senidearen ondoan egoteko.

Debagoieneko preso guztiak daude Euskal Herritik kanpo.

Oñatiko Asier Altzelai eta Antzuolako Karmen Irizar dira urrundu dituzten azkenak, eta orain, ibarrean dauden 31 presoak Euskal Herritik kanpo daude, Frantzia eta Espainiako espetxeetan. Bostek hiru laurdenak beteta dituzte. Ez dute, gainera, askatzeko asmorik, eta askatzen dituztenean, berriro espetxeratzen dituzte, lehen baino urrutiago, gainera.

Une honetan, 700 preso politiko eta 3.000 errepresaliatu, errefuxiatu edo deportatu daude Euskal Herrian, eta preso daudenetatik, zazpi baino ez daude hemengo espetxeetan. Kopurua neurrigabea da, batez ere gizarteak presoak etxera ekartzeko horrenbeste aldiz eskatu eta gero. Gainera, badirudi dispertsioa ez dela oraindik amaituko.

Gobernua PSOEk hartu duelako diozu hori?

PSOEk jarri zuen abian dispertsioa, PPrekin gauzak okertu egin dira, eta orain, berriro PSOEri dagokio konponbidea aurkitzea. Dena dela, ez diot konfiantza handirik ematen. Dispertsioa jarri zuen martxan, GAL erakundea ere PSOEk asmatu zuen, eta Aznarren gobernuak egin duena onartu egin du.

Nola egiten diozue aurre senideok sakabanaketari?

Presoak ahultzeko, kikiltzeko, damutzeko edo erretzeko sakabanatu zituzten, baina ez dute lortu, eta ez dute lortuko. Eta etxekook, lagunok, senideok, beraiekin bat egiten dugu. Berdin dio nora eramaten dituzten, gu joan egingo gara, hori garbi daukagu. Distantzia luzeak, gorabehera emozional asko, desgaste handia sufritzen dugu, baina geure senideak dira, eta ondoan izango gaituzte beti.

Poltsikoari begiratzen badiogu, izugarrizko kostua eragiten du sakabanaketak. Familia batzuk ondo dabiltza diru aldetik, baina beste asko hipotekatu egiten dira. Gainera, ez dugu dirulaguntzarik jasotzen; erakundeek ez gaituzte beste elkarteak bezala hartzen, eta ez zaigu laguntzarik heltzen. Etxeratek abian jarri du dirulaguntza kanpaina bat dirua batzeko eta gastuei aurre egiten laguntzeko: *Egin zaitez Etxerat-kide*.

Baina ez da dirua bakarrik. Euskal presoek Euskal Herrian egon behar dute, eta hori horrela balitz, egoera asko arinduko litzateke, eta arazo batzuk, konpondu. Arrasateko preso gehienak, adibidez, Andaluzian daude. Horien lagun eta senideek 2.000 kilometro egiten dituzte astebururo, 40 minutuz kristal baten atzetik senidea ikusteko. Istripuak izateko aukera handia dute, eta tamalez, gertatu ere gertatzen dira istripuak.

Jaurlaritzak dirulaguntzak agindu zituen presoen sendiendako.

Hori ez da guztiz zuzena. Baztertzailea eta partziala da dirulaguntza hori.

Berez, Euskal Herritik kanpo dauden presoen sendiek jasoko dute, baina Burgosko espetxean dagoenak, ez. Burgos Euskal Herria da ala? Bestetik, Frantziako Estatuan preso daudenek ere ez dute jasoko laguntzarik. Beraz, ibarreko sei presoren sendiek —Mikel Illarramendi, Mikel Zubimendi, Antxon Sasiain, Ane Miren Alberdi, Igor Letona eta Krisitan Goirizelaia— ez dute dirulaguntzarik jasoko. Zergatik? Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko presoen sendientzako bakarrik dira. Espetxean egon zarela erakutsi behar duzu, eta askotan, funtzionarioek ez dizute kartzelan bisitan egon zaren agiririk sinatzen.

Nor da egoera honen erantzulea?

Alderdi politiko guztiek dute egoera honen ardura, eta bereziki, EAJk. Badirudi gertatzen den guztiarekin ez duela zerikusirik. Ibarretxe lehendakariak ikaragarriak esan zituen Madrilgo atentatuaren egilea nor zen oraindik ez genekienean, eta adierazpen haiek zuzendu eta barkamena eskatu beharko luke. Sakabanaketaren alde agertu zen, eta Ertzaintzak ez duela inoiz torturatzen esaten du. Beti esaten du neurriak hartuko dituela, baina benetan zer gertatu den aztertu beharko luke. Ibarreko alkate batek presoen gaiak aspertu egiten duela esan zigun behin, eta agian esaldi horixe da EAJren jarrera azaltzen duena.

Gure senideak preso politikoak dira, eta konponbide edo irtenbide politikoak aurkitu behar dira.

Kepa Urra aretxabaletarraren kasua izan zen torturak egon zirela demostratu zen lehena, ezta?

Bai. Asko kostatu ostean, argi ikusi zen Kepak torturak jasan zituela. Torturatu zuten bi guardia zibilak, ordea, kondekoratu egin zituzten. Beraz, badirudi ohorea dela estatu espainiarrarentzat presoak torturatzea. Amaia Arrieta arrasatearrak hiru urte daramatza espetxean, oraindik ez dute epaitu, eta pentsa Ainara Gorostiagaren kasua errepikatzen bada.

Bestalde, atxilotuak bost edo zazpi egun pasa ditzake inkomunikatuta Auzitegi Nazionalean deklaratu aurretik, eta inkomunikazioa tortura da. Kanpoan ezer ez dakien eta zain dagoen senidearentzat, batez ere.

Martxoan egin du Etxerat elkarteak hirugarren batzarra. Zein erabaki hartu dituzue?

Hiru lan ildo jarri genituen: gure senide eta lagun errepresaliatuek jasaten duten edozein eskubide urraketa salatzen jarraitzea, beraiek garatutako borrokaren izaera politikoa azpimarratzen jarraitzea, eta gatazkaren behin betiko soluzioa ahalbidetuko duen eszenatokia lortzeko lan egitea. Bestetik, estatutu berriak egin genituen, eta lehendakari berria izendatu genuen: Joxepa Arregi arrasatearra, Jesus Mari Zabarteren ama. Semeak 20 urte beteko ditu espetxean. Guztira, 26 urte eta erdi daramatza, eta Joxepak badaki zer den hara eta hona ibiltzea eta sufritzea.

EUSKAL HERRIKO ITZULIA DEBAGOIENEAN

GOIENKARIA

Antolatzaileekin batera, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak, eta Ana Agirre Industria sailburuak moztu zuten Euskal Herriko Itzuliari hasiera eman zion zinta.

Bizikleta gaineko jaia izan zen Bergaran

Euskal Herriko Itzuliko lehenengo eta bigarren etapak Debagoieneko txirrindulari zale askok jarraitu dituzte

OIHANA ELORZA

Bergaran hasi eta bukatu da aurtengo Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa. Ehunka herritar ibili dira antolakuntzarekin batera lanean. Maila oneneko txirrindulariak izan dira, eta bi egunez, txirrindularitzaren hiriburu bihurtu da.

Bergara sartu da dagoeneko Euskal Herriko Itzuliaren historian. Aurten arte ez zen etaparik hasi edo bukatu Bergaran, eta 44. Itzuliko lehen etapa hasi eta bukatu egin da bertan. Horrelako aukerari ez dio hutsik egin nahi izan herriak, eta duen guztia eskaini eta eman dio Itzuliari.

Itzulia bera astelehenean hasi bazen ere, lehenago hasi ziren prestaketa lanak. Infernokua tabernako erreboltan, esaterako, joan zen astean jarri zituzten lasto fardoak eta koltxoiak, txirrindulariak errekara erori ez zitezen. Herriko kale eta toki gehienetan, domekan eta astelehenean autoak ezin zirela aparkatu zioten kartelak jarri zituzten. Herri guztia Euskal Herriko Itzuliari begira zegoen, astelehena iristeko zain. Bitartean, Erramu zapatua ospatu zuen, urteroko feria eta guzti. Zapatu goizean ere jende asko etorri zen Bergarara, baina benetako irudiak, domekan hasi ziren ikusten.

Domeka arratsaldean, batzarra egin zuten talde guztietako zuzendariek Migel Altuna institutuan. Elkarrekin hitz egin zuten, baita antolatzaileekin ere, eta kazetarien galderei ere erantzun zieten. Eta asko izan ziren. Kazetariak bai behintzat, komunikabide guztietakoak baitzeuden izena emanda. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako kazetariak zeuden, besteak beste. Horiez gain, motoetako gidariak, Itzulia autoz jarraitzen dutenak, antolatzaileak, loreak eman behar dituzten neskak, eszenatokia prestatu behar dutenak eta beste hainbat pertsonak eman zuten izena. Guztira, mila lagun inguru akreditatu dituzte, eta domekan saltsa handia zegoen Migel Altuna institutuan jarritako bulegoan. Bitartean, txirrindulariak ingurua ezagutzen ari ziren. Kilometro batzuk egin zituzten Bergara inguruko errepideetan zehar. Adibidez, La Boulangere, Kelme eta Esukaltel-Euskadiko taldekideak, atzera eta aurrera ibili ziren. Talde gehienak zapatu gauean iritsi ziren Debagoienera, eta ibarreko hainbat herritan hartu zuten ostatu, Arantzazun, esaterako.

GOIENKARIA

Bidekurutzeta kalean gora abiatu zen tropela lehen kilometro neutralizatuetan.

Etapa eguerdian hasi zen, baina goizean goizetik giro berezia zegoen herrian.

Txirrindulariak pozik agertu ziren zaleekin eta antolatzaileekin, eta eskerrak eman zizkieten

Herriko lantegi askok itxi egin zituzten ateak astelehenean, eta ikastetxeek ere jai hartu zuten. Batzuk, gainera, Aste Santuko oporretan zeuden, eta eskerrak horri. Ikastetxeetako jolaslekuak aparkaleku bihurtu zituzten astelehenean, gainontzeko aparkalekuetan, Itzuliko autoak, motoak, furgonetak eta kamioiendako zegoen tokia bakarrik.

Eguerdiko ordu biak hamar gutxiagotan abiatu behar zuen tropelak Bergarako plazatik. Jendea, saltsa, musika eta giroa, ordea, lehenagotik hasi ziren. Eguerdia hurbiltzen ari zen heinean, plaza jendez betetzen hasi zen. Hantxe ziren komunikabideetako kazetariak, argazkilariak, antolatzaileak, sinadurak lortzeko gertu zeuden gaztetxoak, txirrindularitza zaleak, azafatak, eta Itzuliaren prestaketak bertatik ikusi nahi zituzten herritarrak. Bi mutil mikrofonotik hizketan ari ziren, Itzuliaren gaine-

EUSKAL HERRIKO ITZULIA DEBAGOIENEAN

koak kontatzen. Txirrindularien zain guztiak, eta hauek ez ziren heltzen.

Txirrindulari taldeak ia denak batera etorri ziren San Martin plazara. Sinadura bota, taldea aurkeztu, eta zalapartaka zebiltzan kazetarien galderak erantzun zituzten. Eta 13:50ean, Euskal Herriko 44. Itzulia hasi zen, Bidekurutzeta kalean gora.

ZALEAK BAZTER GUZTIETAN

Plazan jende asko batu zen Itzuliaren hasiera ikusteko, baina lehenengo etapako kilometro guztietan, jendea zegoen kamino bazterretan. 139 kilometro zituen lehen etapak eta lau mendate: Itziar, Elosu, Deskarga eta Asentzio.

Txirrindulariak aldapan gora doazela, gehiago disfrutatzen du ikusleak. Horren erakusgarri da Gorlan, Deskargan eta Asentzion bildu ziren zale mordoaren irudia. Tropel koloretsua Gorla igotzen ikusi zutenek Beloki azken postuetan zihoala ikusi zuten, eta zerbait gertatzen zitzaiola pentsatu zuten. Deskargan zeuden zaletuek, Belokiren ezina ikusi zuten, eta gainontzeko txirrindulariei beste animu eman zizkioten honi ere. Baina lazkaotarra ez zen Legazpira iritsi.

Asentzion ere jende asko zegoen. Bergarakoak asko, baina baita Debagoieneko beste herrietatik joandakoak ere. Oñatiko batzuk, adibidez, bizikletan joan ziren Asentzio gainera. Izan ere, Asentzioko mendatea erabakigarria izango zela uste zuten askok. Helmugarako zortzi kilometroren faltan, oso mendate gogorra da, eta tropela apurtzekotan, hortxe apurtuko zela uste zuten, hortxe erabakiko zela lehendabiziko etapa. Azkenean, Murtziako Alejadro Valverde izan zen helmugara heltzen lehena. Sprintean irabazi zuen, baina eroso, erraz. Berarekin batera, beste 20 txirrindulari sartu ziren.

Jon Odriozola oñatiarraren taldekidea da Valverde, Kelme taldekoa. Jon bera, Oñati bakarrik pasatzen saiatu zen. Udanako gainean egin zuen ahalegina tropela uzteko, baina metro gutxi egin zituen bakarrik, berehala harrapatu zuten.

Helmuga jarrita zegoen Ibargarai kalea ere, jendez lepo zegoen, txirrindulariak lasterketa bukaera ikusteko gogoz. Gainera, hiru aldiz pasa ziren txirrindulariak herritik, eta ederki disfrutatu zuten zaleek. Tropela paretik pasatzen zen aldi bakoitzean, kale bazterretan jarrita zeuden propagandazko kartelak astintzen zituzten ikusleek, egundoko zarata eginez. Giro aparta zegoen helmugan, eta txirrindulariak eskertu egin zuten hori. Irabazleak, esaterako, Valverdek, gogoz eragin zion txanpan botilari, eta eskerrak eman zien zaletu guztiei.

Poliki-poliki erretiratu egin ziren txirrindulariak, eta martitzen goiza arte. Martitzenean esan zien agur Debagoienak txirrindulariei.

AHALIK ETA SINADURA GEHIEN LORTZEKO GERTU

Gaztetxo asko papera eta boligrafoa eskuetan zituztela joan ziren txirrindulariak animatzera, sinadurak lortzeko esperantzarekin, bide batez. Lehenengo ilaran tokia aurkitu zutenek zorte hobea izan zuten beste batzuek baino.

IBAN MAYOREN SINADURAK DESIRATUENAK

Sinadurak lortzeko estrategia onak erabili zituzten batzuek. Euskaltel-Euskadi taldearen elastikoa jantzita joan zirenek talde horretako txirrindulariak erakarri zituzten, eta errazago lortu zituzten. Mayorena, adibidez, horrelaxe lortu zuten.



TXIRRINDULARIA ETA ANTOLATZAILEA, ELKARREKIN

Bata txirrindularia da, eta bestea, antolatzailea. Biak dira oñatiarrak, eta elkarrekin hizketan izan ziren Euskal Herriko Itzulia hasi baino lehen. Lazkaon berriro ikusiko dute elkar, ziurrenik, eta lasaiago hitz egingo dute orduan.

TXIRRINDULARIAK, BERTATIK BERTARA

Iazko irabazleak, Iban Mayok, kazetari askoren galderak erantzun behar izan zituen, tartean, Agustin Ezenarrorenak. Mayoz gain, gainontzeko txirrindulariak ere harrapatu zituzten kazetariek: Beloki, Odriozola, Osa eta Astarloa, adibidez.

EZ ZEN MUSIKARIK FALTA IZAN

Bergarako musika eskolako gazteen bandak kaleak girotu zituen goizetik. Kalean gora eta behera ibili ziren, ez zen musikarik falta izan egun osoan, txirrindulariak helmugan sartu zirenean ere hantxe zeuden-eta.



EZ DA TXANTXETAKO ITZULIA

Lo que faltaba **programako kazetaria ere txirrindulariei galdezka ibili zen, txantxetan batzuetan, serio bestetan. Igor Sarriegi Itzuliko aurkezleak —atzean dagoena— behin baino gehiagotan esan zuen moduan, maila handiko Itzulia da.**

EUSKAL HERRIKO ITZULIA DEBAGOIENEAN

AITOR LIZARRALDE

Kelme taldeko Alejandro Valverde sartu zen lehena Bergarako helmugan.

GOIENKARIA

Joseba Beloki pozik agertu zen komunikabideen aurrean, gogoz.

GOIENKARIA

Gorla mendatea pasatzen azkenetarikoa izan zen Beloki.

GOIENKARIA

Euskal Herriko Itzuliko tropel koloretsua Gorlan gora.

GOIENKARIA

Zale bergarar batzuek gogotik animatu zuten Beloki Deskargan. Sufritzen zihoan.

GOIENKARIA

Alejandro Valverde izan da aurtengo Itzuliko lehen liderra.

GOIENKARIA

Bergarako antolatzaileek lan handia egin zuten dena gertu eta ondo egoteko.

EUSKAL HERRIKO ITZULIA DEBAGOIENEAN

Itzuliaren beste protagonista batzuk



GOIENKARIA

Fermin Aramendi, ETBko kazetaria; Marino Lejarreta eta Txomin Perurena.



GOIENKARIA

Iñaziok Euskalteleko trajea jantzi zuen, baina bizikleta etxean utzi zuen.

JON UNAMUNO ETA TINO ZABALLA

Txirrindularia izandakoa da Jon Unamuno bergararra eta Itzuliko parte hartzaile batzuk taldekide izan ditu. Zaballarekin atera genion argazkia. Hala ere, Unamunori hemengo norbaitek irabaztea gustatuko litzaioke Mayok edo David Etxebarriak, adibidez. Bere ustez Lazkaon erabakiko da dena eta ahal dela bertara joango da azken etapa ikustera.

AROA ETA ALAZNE

Donostiarrak dira bi neska hauek, eta mendiko saria eman behar dute, egunero. Iaz ere sari bera eman zuten, baina ez dira oroitzen nori. Txirrindulari baten aurpegia ezaguna egin zaie, baina ez dira izenaz gogoratzen. Iban Mayorekin oroitzen dira soilik. Atzerritar batzuek hiru musu ere eskatu dizkiete, baina normalean, bi ematen dituzte.

MADDI, IRATI, IRAIA ETA ARIANE

Bergarako plaza barruan zeuden Itzulia hastear zegoela. Arianek loreak eman behar zizkion txirrindulari bati, eta urduri pasa zuen goiza. Aitzakia horrekin, lagunek ere plaza barrura sartzea lortu zuten. Gainontzean, kazetariak eta antolatzaileak zeuden bakarrik plazan. Sinadurak biltzen ibili ziren goiz guztian, baina ez zen lan erraza izan. Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari guztienak lortu nahi zituzten, Iban Mayo eta David Etxebarriarenak batez ere.

IGOR SARRIEGI

Txirrindulariak aurkezten ditu eta baita etapako azken kilometroak zuzenean kontatzen. Bost egunen ostean, azkenerako nekatu egiten da, baina gustuko du bere lana. Itzulia irabazteko hautagaiak asko direla dio.

XABIER ETA EUKEN

Txirrindulari artean, koadernoa eskuetan, autografo eske aurkitu genituen bi mutiko hauek. Eukeni Iban Mayok biseran egin zion sinadura eta Euskaltel taldearen jarraitzaile izanik pozik geratu ziren bera eta laguna. Bi etapen hasierak San Martin-plazan ikusi bazituzten ere, gainontzeko ibilbidearen jarraipena telebistaz egin dute.

NEREA, AINHOA ETA SARA

Tropela Bergarako plazatik abiatzen ikusi zuten lehenbizi, eta helmugara nola iristen ziren ikusi zuten ondoren. Txirrindulari batzuk, gertutik ikusi dituzte, eta batzuk ezagutu ere ezagutu dituzte, Joseba Beloki eta Iban Mayo, adibidez. Telebistaz ez dute Itzulia jarraituko, aspertu egiten direlako. Benetako giroa kalean dagoela diote.

LANA

LANA Koop.
BATZAR NAGUSI ARRUNTERAKO
DEIALDIA

Gure kooperatibaren estatututako 43 artikuloan agertzen den bezela, artekaritza kontseiluak batzarre nagusi arrunterako deialdia egiten du, 2004ko Apirilaren 24an, goizeko 10:30etan lehen deialdian eta 11:00 bigarren deialdian, “KULTUR ETXE”ko bilera aretoan, Santa Marina Plaza, z/g Oñatin, ondorengo

GAI ZERRENDA

1.- 2003ko Batzarre Arrunta eta Bereziaren agiri onartzea.
2.- 2003ko Memoria, Kontuak eta Balantzearen aztarketa eta onartzea.
3.- Soberagin garbien banaketa.
4.- Lege eta Araudizko erabakiak.
5.- 2004ko Gestio Planan azterketa eta onartzea.
6.- Beste batzuk, erregu eta galderak.

Oñati, 2004ko Martxoaren 29a

Lehendakaria
Joseba González

GOIENKARIA
Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a

EUSKAL HERRIKO ITZULIA DEBAGOIENEAN

JAIME UGARTE, ITZULIKO KOORDINATZAILE OROKORRA

“Ez dago honen moduko partaidetza duen beste lasterketarik”

EDU MENDIBIL

Jaime Ugartek 23 urte daramatza Euskal Herriko Itzuliaren antolaketa taldean. Martitzenean izan ginen berarekin hizketan; Ugarte oso pozik zegoen bezperan jokatutako lehen etapa primeran atera zelako. Egubakoitzera arte lehia gogorra izango zela esan zigun.

Alejandro Valverdek sekulako erakustaldia egin zuen atzo.

Bai, oso erraz nagusitu zen Ibargaraiko helmugan. Momentuko txirrindularirik onenetakoa da eta Euskal Herriko Itzuliaren lehen liderra izateko prestigio handiko gizona. Sasoi betean dago eta garaipena eskuratzeko faboritoetako bat dugu.

Belokik, berriz, segituan esan dio agur Itzuliari...

Ez dut horren gainean komentariorik egin behar. Bere taldea ekartzeko ahalegin berezia egin genuen eta hortik aurrera bakoitzak bere erantzukizuna hartu behar du.

Egubakoitzean Itzulia amaitu bitartean, zein izan daiteke etapa klabea?

Zaila da esatea. Hala ere, egueneko etapa erabakigarria izan daiteke. Lekunberrira iritsi baino kilometro batzuk lehenago, txirrindulariek Azpirozeko mendatea gainditu beharko dute eta borroka handia izango da ziurrenik. Bezperan, eguaztenean, Orduñatik igaroko da tropela eta han ere diferentziak egon daitezke eta faborito bat edo beste ziur atzean geratzen dela. Ikusi behar. Edozein modutan, lehia gogorra izango da amaierara arte. Emozioa ez da faltako.

Urte mordoa daramazu antolaketa lanetan. Zein txirrindularik inpresionatu zaitu gehien?

Ezinezkoa zait galdera horri erantzutea, momentuko txirrindulari onenak izan ditugulako urte hauetan. Palmaresa errepasatu besterik ez dago. Itzuli txikiei dagokienez, honen moduko partaidetza duen beste lasterketarik ez dago, ezta Paris-Niza edo Tirreno-Adriatiko ere.

Armstrong ez etortzearen pena daukazue?

Ez. Sekulako partaidetza lortu dugu eta oso pozik gaude etorri diren taldeekin. Armstrong ez litzateke irabaztera etorriko eta lehen egunean alde egiteko ba... Begira zer egin zuen Cipollinik azken aldiz Espainiako Itzulira etorri zenean. Eta nik dakidan beste bati gauza bera gertatu zaio gurean aurten.

AITOR LIZARRALDE

Jaime Ugartek 23 urte daramatza Itzuliaren antolaketa taldean.

“Alejandro Valverde lehen liderra momentuko txirrindularirik onenetakoa da. Sasoi betean dago eta irabazteko faboritoetako bat dugu”

“2005eko Euskal Herriko Itzulia Zarautzen hasi eta Oñatin amaituko da. Beti ere, urtebeteko aurrerapenarekin zehazten ditugu etapak”

Astelehenean Bergaran jokatutako etapan dena ondo irten zen, ala?

Bai, guztia primeran antolatuta zegoen eta Lokatza taldeak egindako lana nabarmendu nahi dugu. Bidegurutze guztietan laguntzaileak ziren eta dena eskatutako bezala atera zen. Hori gutxi balitz, maila handiko etapa bizi izan genuen eta Valverdek garaipen polita lortu zuen. Zale mordoa atera zen errepidera eta egun ederra izan zen. Zalantzarik gabe, munduko zalego onenetakoa dugu Euskal Herrian.

Datorren Itzuliaren ibilbidea zehaztuta duzue?

Bai, Zarautzen hasi eta Oñatin amaituko da 2005eko Euskal Herriko Itzulia. Urtebete lehenago zehazten dugu ibilbidea eta 2007ra bitartean herri askoren eskaerak dauzkagu esku artean.

Bergaran noiz izango dugu beste etapa amaieraren bat?

Badirudi 2008. urtean beste etapa bat ekartzeko asmoa dutela Lokatzakoek, baina ikusiko da. Lehen esandako moduan eskaera pilo bat izaten ditugu eta ezinezkoa zaigu guztiei aurre egitea. Edozelan ere, oso pozik gaude Bergaran izandako erantzunarekin.

Komunikabide ugari Itzuliaren berri emateko

IÑIGO AIESTARAN

ETB

Euskal Herriko Itzulia hasi baino minutu batzuk lehenago harrapatu genuen Iñigo Aiestaran, Bergarako plazan. Etapa bakoitzaren lehen kilometroak autoz egingo dituela esan zigun, eta motoan, helmugarako gelditzen diren azken bi orduak. Lasterketa bertatik bertara jarraitzeaz gain, txirrindularien adierazpenak ere hartuko ditu. Bitartean, Fermin Aramendi lankideak eta Marino Lejarreta eta Txomin Perurena adituek lasterketaren gorabeherak ikusentzuleei kontatzen dizkiete. Eguraldi ona egitea gura du Iñigok, konexioak ez direlako hain garbiak izaten bestela, eta eguraldi iragarpenak ez betetzea gura du.

DANI EGAÑA

RADIO EUSKADI

Radio Euskadirentzat lasterketa garrantzitsuena dela esan digu Dani Egaña kazetariak, eta kirol talde osoa aritzen dela lanean, Euskal Herriko Itzulia ahalik eta sakonen eta zabalen emateko entzule guztiei. Joserra Uriartek eta biek ematen dute lasterketaren berri, eta bi furgoneta eta motoa ekarri dituzte. Oso lasterketa motza, kilometro gutxikoa, baina martxa handikoa dela dio, etapa guztiak ezberdinak direla, eta egunero gertatzen dela zerbait. Azken urteotan, Frantziako Tourra eta Espainiako Vuelta ere berak komentatzen ditu irratiz. Ondo ezagutzen ditu, eta Itzuliarekiko duten aldea ez dela horrenbestekoa dio. Euskal Herriko Itzulira munduko txirrindulari onenak etortzen direla azpimarratu nahi du; Armstrong izan ezik, Tourraren parekoa dela Itzulia.

MUXIKA, LORENZO ETA PARCERO

EL MUNDO DEPORTIVO

Berez, Bartzelonako Javier Almas kazetariak egingo ditu lasterketaren laburpenak eta kronikak, berak idazten dituelako txirrindularitzaren orrialdeak. Beste kazetari hauek Itzuliaren gehigarria egingo dute. Lana aurrez banatu dute, bakoitzak gai bat eta protagonista batzuk landu behar ditu: batek txirrindulari kolonbiarrak elkarrizketatuko ditu, amerikarrak beste batek, argazkiak ere aterako dituzte, eta taldeetako entrenatzaileekin eta antolatzaileekin ere hitz egingo dute. Gipuzkoako erredakzioak Bergaran, Lekunberrin eta Lazkaon amaitzen diren etapak jasoko ditu, eta Bizkaikoak, Zallan eta Gasteizen amaitzen direnak.

Iñigo Aiestaran.



Dani Egaña.

Jose Luis Lorenzo, Bruno Parcero eta Mikel Muxika.

Goienka 2a

Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 7tik 16ra

Egitaraua

Apirilak 21
Oñatiko kultura etxea / 11:30
'KANTUKETAN'
Euskal kantuaren gaineko erakusketa inauguratuko dute. 18:30-20:30 izango da bisita ordutegia.

Apirilak 21-27
Gatzagako Garro jauregia
'EUSKAL HERRIKO AURPEGIAK'
Ordenagailu bitarteko erakuske da. Ordutegia da 18:00etatik 20:00etara.

Apirilak 22
Elgetako kultura etxea / 19:00
IPARRALDEKO LITERATURA
Itxaro Borda, Pier-Por Berzaitz eta Karlos Jimenezek kontakizun-musika emanaldia egingo dute.

Apirilak 23
Bergarako Novedades / 22:30
BIDAIA MUSIKA TALDEA
Caroline Phillips, Mixel Ducau, Ritxi Salaberria eta Jabi Areak osatzen dute taldea. 5 euro da.

Apirilak 24
Arrasateko Amaia antzokia / 20:00
BALLET BIARRITZ
Balet errusiarrei omenaldia dantza saioa eskainiko dute.
10 euro da.

Apirilak 25
Oñatiko Santa Ana / 18:00
UMEENDAKO ANTZERKIA
Muzzikiren bidaia harrigarria lana eskainiko dute Olatz Beobidek eta Pascail Gaignek.

Apirilak 25
Arexabaletako plaza / 18:00
DANTZ PIKO
Iparraldeko hainbat dantza ikasteko aukera izango dute herritarrek.

Apirilak 30
Eskoriatza, kiroldegia / 22:30
ERRAMUN MARTIKORENA
Euskal ahotsik hunkigarri eta esanguratsuenetako baten emanaldia. 5 euro.

Maiatzak 1
Antzuolako udaletxea / 22:00
ANJE DUHALDE
Gurean zeresan handia izan duen abeslari eta gitarra jotzailea; Errobi taldeko sortzaile izan zen.

Iparraldera bidaia

DEBAGOIENETIK IRTEN BARIK

Geu Iparraldera ez bagoaz, Iparraldea hurbilduko da guregana. Izan ere, Aste Santutik bueltan, etxetik mugitu gabe, Iparraldeaz gehiago ikasi ahal izango dugu *Iparraldea bertan* kultura hamabostaldiaren bidez. Uztaritzeko Euskal Kultur Erakundearen eta Debagoieneko Mankomunitatearen ekimenez, apirilaren 21etik maiatzaren 2ra bitartean, Iparraldeko eta baita Hegoaldeko hainbat musikari, idazle, antzerki eta dantza talde... bisitan izango ditugu ibarrean, emanaldiak egiten. Horrez gain, EKEk bi erakusketa ere antolatu ditu.

Iparraldea bertan programaren helburua da, hain zuzen, alde bateko zein besteko kultura eragileek sumatzen duten "hutsunea" betetzen joatea, elkar ezagutzari dagokionez; eta, bestetik, Euskal Herri osoko kultura sorkuntzari aukera berriak ematea. Egitasmoa hirugarrenez dator Hegoaldera, eta EKEk espero du horrelako ekintza gehiago antolatzea.

Herri bakoitzean izango da ekitaldiren bat hamabostaldiak irauten duen bitartean. /14 /LEIRE KORTABARRIA

IRUDIA: ARTEMAN

GOIENKARIA
Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a

EUSKAL KULTURA/ **'IPARRALDEA BERTAN' KULTURA HAMABOSTALDIA**

Iparraldea Debagoienera dator

IPARRALDEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN KULTURA EKINTZAK EGONGO DIRA IBAR OSOAN, APIRILAREN 21ETIK MAIATZAREN 2RA ARTE

LEIRE KORTABARRIA

Iparraldeko eta Debagoieneko hainbat kultura arduradun bat etorri dira: Iparraldeak oihartzun handiagoa behar du gurean, eta hango euskaldunekin harremanak estutu beharra dago. *Iparraldea bertan* kultura egitasmoa bide ezin hobea izan daiteke zubi berriak eraikitzeko.

Aukera une ezin hobean etorri da: Debagoieneko Mankomunitateak norabide berria eman nahi zion bere kultura sailari; bestalde, Iparraldean, Euskal Kultur Erakundeak aspalditik zuen Ipar eta Hegoaldearen artean harremanak estutzearen kezka. Horrela iritsi da Debagoienera *Iparraldea bertan*. Izenak dioen bezala, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako kultura sortzaileen lana, musika, ideiak... gurera gerturatzea da helburua. Horretarako, EKEk propio antolatutako ekintzak daude, eta Iparraldekoak diren edo han lan handia egin duten artisten emanaldiak.

Iparraldea bertan kultura hamabostaldia da. Apirilaren 21ean hasiko da, maiatzaren 2ra bitartean. Ibar osoari zuzendutako ekintza da, eta herri guztietan izango da ekitaldiren bat. Mankomunitateak 27.000 euroko aurrekontua onartu du.

BI ERAKUSKETA

Iparraldea bertan egitarauak Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan egindako denetariko kultura ekintzetaz gozatzeko aukera eskaintzen digu.

Hamabostaldi osoan, EKEk ahalegin handiz prestatutako bi erakusketa bat izango dira, eta EKEk dioskunez, biak "oso garrantzitsuak" dira eurendako. Bata da *Kantuketan*. Daniel Landart EKEko kide eta Hegoaldearekin harremanetaz arduratzen denak dioskunez, nahiko berritzailea da ekintza hau: "1947an, kasetetan grabatu ziren hainbat euskal kanta, eta Parisko museo batean zeuden; orain, horiek entzuteko modua izango da". Teknologia aurrerapenen bidez, abesti ederrenen lau orduko grabaketaz gozatu ahal izango da.

Bigarren erakusketa da *Euskal Herriko Aurpegiak* deritzona, Gatzagan: ordenagailuen bidez, Euskal Herriko kultura, hizkuntza... hobeto ezagutu ahal izango dute etxekook eta kanpokook. EKEren berezitasun bat da Iparraldean kokatuta egon arren, Euskal Herri osoa duela lan esparru; Landart-ek dioen bezala, "gure asmoetako bat da Hegoaldearekin, bere erakundeekin... harremanak sendotzea; baina baita Euskal Herriko kultura eta sortzaileen izena zabaltzea".

IZEN PROPIOAK

Bi erakusketez gain, hamabostaldiak hainbat artistaren lana hurreratuko digu debagoiendarroi. Egitarauak aldea du martxoan Donostian aurkeztu zenarekin, baina filosofia eta helburuak berberak dira.

Iparraldeko literatura mintzagai izango da, hitzaldi-musika emanaldi batean, Itxaro Borda idazlea, Pier-Por Berzaitz kantaria eta Karlos Jimenez piano jotzailearen eskutik. Bergaran, Bidaia taldeak joko du: Caroline Phillips, Mixel Ducau, Ritxi Salaberria eta Jabi Areak osatzen dute; eskarmentua dute euskal folkean, Zaldibobo, Sorotan Bele... bezalako taldeekin lan egin baitute. Arrasaten, Ballet Biarritz taldeak emanaldia egingo du; Oñatin, umeendako antzezlana jokatuko dute Pascail Gaignek eta Olatz Beobidek; Aretxabaletan, Dantz piko hainbat euskal dantzak osatutako emanaldia egingo du Perez bikoteak, eta Erramun Martikorena eta Anje Duhalderen saioek osatzen dute egitaraua.

EKE

Bidaia taldeak apirilaren 23an joko du, Bergaran.

DANIEL LANDART / EKE-KO ZUZENDARIORDEA

"Ipar eta Hegoaldeak, zoritxarrez, ez dugu elkar behar bezainbat ezagutzen"

Euskal Kultur Erakundeko zuzendariordea dugu Daniel Landart. Erakunde osoa ibili da *Iparraldea Bertan* egitasmoa antolatzen, baina Danielek eman dizkigu argibide gehiago.



Bere ibilbidea badu *Iparraldea Bertan* egitasmoak, ezta?

Bai. Donostian, Koldo Mitxelenan egon da hiru astez, martxoan. Baita Getxon ere; eta orain, Debagoienera eramango dugu. Edozelan ere, egitasmoa orain hiru urte sortutako *Kantuketan* erakustalditik jaio zen; horren inguruan, kultura ekintza gehiago egitea erabaki genuen.

Asko kostatu zitzaizuen antolatzea?

Ez, izan ere, artista eta talde guztiek poz handiz hartu zuten ekintza. Guretako oso egitasmo garrantzitsua da. Hasieran gaude, baina etorkizunean ekintza gehiago egin nahi ditugu gure burua Hegoaldean aditzera emateko.

Harreman estuagoak behar dira Hego eta Iparraldearen artean?

Zoritxarrez, ez dugu elkar behar bezain ondo ezagutzen. Muga asko erori dira, eta gero eta gehiago konpartitzen dugu, baina elkar ezagutzan sakondu nahiko genuke, eta EKEren helburua da, hain zuzen, mota honetako ekintza gehiago bultzatzea.

ZER DA EKE?

Euskal Kultur Erakundea, 14 urte gure kulturaren alde lanean

Euskal Kultur Erakundeak antolatzen du Iparraldea Bertan. Uztaritzen dago, Lapurdin. 1990ean sortu zen, eta Frantziako kultura ministerioak, Akitania eskualdeak, Departamenduak eta 145 herri biltzen dituen euskal kulturaren arteko herriarteko sindikatuak babestutako eta diruz lagundutako bere arloko Iparraldeko kultura elkarte bakarra da. Hala ere, bere lan eremua Euskal Herri osoa da. 70 kultura elkarte dira Erakundeko partaide.

'KANTUKETAN' ERAKUSKETA

Euskal kantu tradizionalaren gainean jakin beharreko guztiak

Iparraldea Bertan egitarauak hainbat hitzordu eskaintzen dizkigu; horien artean, *Kantuketan* erakusketa ilusio handiz antolatu du EKEk. Hain zuzen, Euskal Herri osoko euskal kantu tradizionala jatorrizko moduan entzuteko aukera ematen digu. Euskal kantuaren historia, gizartean duen lekua... jorratzen ditu erakusketak. Oñatin izango da, apirilaren 21etik maiatzaren 2ra arte. Parisko museo baten zeuden abestiak berreskuratu dituzte.

JARRERA BIKAINA

Artista guztiek bere egin dute 'Iparraldea Bertan'-en helburua

Oso artista ezagunek, eta baita Hegoaldean euren izena aditzera ematen hasiak direnek, bietarikoek egin dute bat egitasmo honekin. EKEk dioenez, artistek bere egin dituzte *Iparraldea bertan*-en xedeak, eta hasieratik, ez zuten inongo trabarik ipini. Donostian parte hartu zuten izen batzuk izan ziren Koldo Amestoy, Maialen Estecahandy, Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Frantxua Cousteau, Txomin Heguy, Pantxix Bidart...

MANKOMUNITATEA ETA KULTURA

Mankomunitateak kultura saila berrantolatu eta indartu du

Mankomunitateak lan ildo bat estreinatuko du EKErekin lankidetza honekin. Izan ere, legealdi berrian, Mankomunitateak bateratu egin ditu kirol, kultura eta aisialdi sailak, eta indarberritu egin du lan arlo hori, Ernesto Murgiondoren zuzendaritzapean. Horren emaitza izango da Debagoiena osorako antolatutako gero eta kultura ekintza gehiago etorkizunean, nahiz eta herri bakoitzak bere eskaintza propioa antolatzen jarraituko duen.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

Orain
Debagoiena
esku-eskura

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

Apirilak 7-16

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ANTZUOLA

► **Liburutegia itxita egongo da** gaur, eguaztena, baina Pazko Astean zabalik izango duzue.

ARAMAIO

► ***Chicago*** filma eskainiko dute etzi, egubakoitza, kultura etxean, 22:30ean. Euro bat da.

ARETXABALETA

► **Udaleku irekietarako** 16 urte beteta dituzten begiraleak behar dituzte. Mugaeguna da apirilaren 21a. Argibideak, udaletxean edo kultura etxean.

ARRASATE

► **Uztaileko udalekuetan** begirale izan nahi dutenek apirilaren 23ra arte dute izena emateko aukera, Txatxilipurdin. Deitu 943 77 17 39 zenbakira.

► **Elkarteen arteko XIV. Doke Txapelketa** jokatuko dute etzi, egubakoitza, Monterrongo zelaian, 10:00etan. SUDC elkarteak antolatzen du txapelketa ezagun hau.

► **Izaskun Murgia Lirika Elkarteak** dei egiten die bazkideoi zartzuelaren entseguetara joateko. Jacinto Guerreroren *El huésped del sevillano* lana aukeratu dute aurten. Entseguak apirilaren 19an hasiko dira, Arrasate Musikalen, 21:15ean.

BERGARA

► **Turismo bulegoa** zabalik egongo da hil osoan, honako ordutegiarekin: astelehenetik zapatura, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30; domeka eta jai egunetan, 11:30-14:30. Apirilaren 11n eta 12an bakarrik goizez zabalduko dute; 18an eta 25ean itxita egongo da. Egunero, bisita gidatuak antolatzen dituzte, doan.

► **Odol emaileek** odol-ateratze saioa antolatu dute hilaren 14rako, eguaztena, Seminarioan, 18:30ean.

DEBAGOIENA

► ***Egonaldiak familia euskaldunetan*** egitasmoa abian dago. Familiek eta ikasleek ere badute aukera izena emateko. Familiek aukera dute izena emateko apirilaren 18ra arte. Argibide gehiagorako, deitu 943 47 44 47 telefono zenbakira (Olga).

► **Mankomunitateko turismo informazio gunea** zabalik egongo da apirilaren 18ra bitartean, Arantzazuko Gogartetxe ondoko lokalean. Ordutegia honakoa da: 10:30-14:00 eta 15:30-18:30.

► **Tiñes-era (Alpeak)** irteera antolatu dute Aloña Mendi eta Pol-Pol mendizale taldeek apirilaren 9tik 17ra bitartean. Izena emateko edo argibideetarako, jo Aloña Mendi tabernara martitzen eta eguenetan, 19:00-21:00, edo Bergarako Pol-Polen egoitzara, astelehenetik eguenera, 19:30ean, edo deitu 943 78 08 10 edo 943 76 48 51 zenbakietara.

ESKORIATZA

► **Binakako mahai-jokoen txapelketa** antolatu du Olazar erretiratuen elkarteak bere bazkideendako. Hilaren 12an izango da, astelehena. Izenematea bertan, doan.

► **Zahartzarorako bizitza eta osasun ohituren** inguruko hitzaldia egongo da eguenean, hilak 15, Olazar erretiratuen elkartean, 17:00etan.

OÑATI

► ***Quadrophenia*** The Who talde britainiarrak ekoiztutako filmaren emanaldia egongo da bihar, eguena, gaztelekuan, 22:00etan, Musika ikusgarria zikloaren barne.

► **Eskorbuto taldearen** gaineko dokumentala eskainiko dute apirilaren 15ean, eguena, gaztelekuan, 22:00etan.

► **Basogintza eta zertifikazioa** gaion inguruko hitzaldia egingo du Fernando Otazua adituak hilaren 16an, egubakoitza, Nekazarien Elkartean, 19:30ean. Elkarteak 25. urteurrena du, eta urteko egitarauaren barne dago ekintza hau.

► **Hainbat turismo ekintza** daude abian datozen egunotan. Hilaren 8tik 10era, Unibertsitatean informazio gune bat egongo da, eta bisita gidatuak eskainiko dituzte; eta apirilaren 11n eta 12an, Unibertsitatera eta Mikel Deunaren elizara bisita gidatuak egongo dira.

► **Markel Irizar txirrindulariaren** lagunarteko bazkide egiteko aukera duzue astean bi egunetan, martitzen eta eguenean, alegia, Aloña Mendi tabernan, 19:00etatik 20:30era.

LEHIAKETAK

ANTZUOLA

► **Kukumarro lehiaketa** deitu du Udalak, bi kategoriatan: 12 urtera artekoak, 12tik gorakoak, eta erretiratuak. Parte hartzeko azken eguna maiatzaren 12a da. Lanen erakusketa ere egongo da.

BERGARA

► **XIX. Koldo Eleizalde** literatura lehiaketa deitu dute, ipuin, bertso, komiki-tira eta antzerki kategoriatan. Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenei dago zuzenduta. Mugaeguna apirilaren 21a da. Eraman lanok Udaleko Euskara Zerbitzura.

DEBAGOIENA

► **VII. Abdon Juaristi margo lehiaketa** deitu du herriko zezen zale elkarteak. Aurtengo Mendekoste jaietan, zezen jaia iragarriko duen kartela aukeratuko dute. Argibide gehiago, *www.bergara.es* gunean.

► **XX. Bergara Hiria argazki lehiaketa** deitu du Pol-Pol Argazki Taldeak. Edozeinek parte har dezake. Zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak aurkeztu daitezke, mota bakoitzeko lau, gehienez ere. Ekarri lanok Bergarako Udaletxera, edo bidali, posta zertifikatuz, herriko kultura etxera. Parte hartzeko mugaeguna ekainaren 2a da, eta 540 euro banatuko dituzte saritan. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefono zenbakira.

► ***Barre barra-barra*** ipuin barregarrien lehenengo lehiaketa deitu du Debagunek, Debagoieneko Euskara Elkarteen Elkargoak. Euskal Herriko edozeinek hartu dezake parte. Idatzizko zein ahozko ipuinak onartuko dituzte; idatzizkoan, 450 eta 150 euroko sariak banatuko dituzte, onenari eta Debagoieneko onenari, hurrenez hurren; ahozkoan, 300 euroko sari bakarra. Entregatu lanok Bergarako Errotalde jauregian (kultura etxean) maiatzaren 28a baino lehen.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Laneko estresari aurre egiten ikasteko** jardunaldiak deitu ditu ICTE Hirugarren Adineko erakundeak. Giza eta osasun zaintza arloko langileei dago zuzenduta. Argibideetarako, deitu 943 77 16 99 edo 943 77 17 15 telefono zenbakietara.

► **Hastapen mailako taila ikastaroa** deitu du Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak apirilaren 26tik aurrera. Izena emateko, deitu Jose Mariri (943 79 77 57) edo Imanoli (943 03 78 28).

► **Makillaje ikastaroa** deitu du AED elkarteak hilaren 24rako, 11:00-14:00. Izenemate epea apirilaren 22an bukatuko da. 12 euro da, 10 AEDko bazkideendako eta 18 urte baino gazteagoendako.

► **Perkusio ikastaroa** emango du Iñaki Bruñak apirilaren 19an hasita, ekainaren 14ra bitartean, astelehenero. Hastapen eta sakontze mailak jorratuko dituzte. Matrikula 30 euro da; eskola bakoitzera joatea, 5 euro. Argibideetarako, jo Gazte Bulegora (943 77 00 65).

► HAINBAT EKITALDI

GAZTETXEAREN 13. URTEURRENAREN OSPAKIZUNAK ARRASATEN

Arrasateko gaztetxe zaharraren okupazioaren 13. urteurrena da, eta AGAKO (Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua) taldeak, gaztetxearen kudeatzaileak, hainbat ekintza antolatu ditu hori ospatzeko. Orain urtebetetik, gaztetxe berria dute Arrasaten, baina 11 urtetan Arrasateko Gaztetxe izan zena ere gogoan dute. Hona hemen egunotan izango diren ekintzak: etzi, egubakoitza, Marea taldearen emanaldia; hilaren 16an, Betagarri eta Doverman (bi emanaldiak 22:30ean); apirilaren 18an, domeka, Panico Escenico taldearen antzerki emanaldia, 19:00etan. Hil bukaerara arte, ibarreko plan ekologikoaren gaineko hitzaldia, zinema emanaldia, pintxo eta sagardo dastaketa, kontzertuak… egongo dira.

Non: Arrasateko gaztetxean. **Noiz:** hil bukaerara arte. **Ordua:** Egunotako kontzertuak 22:30ean; sarrera 4 euro da.

Olatz Alcelay Dk.

Kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailean espezialista

Lipoeskultura-Liposukzioa
Betazal kirurgia
Sudur kirurgia
Belarriak zuzendu
Sabel kirurgia
Bularrak handitu eta txikitu
Aurpegi liftinga

RPS 019/03

INSTITUTO VASCO-NAVARRO de CIRUGIA PLASTICA Y ESTETICA

Santa Maria de la Asuncion klinika
Izaskun errepidea 9 · TOLOSA · Tel.: 943 67 57 77

Virgen del Pilar osasun etxea
Zarategi pasealekua 10 · DONOSTIA · Tel.: 943 29 75 88

NATURA, HIRI ETA GIZA PAISAIAK, ARGAZKI ERAKUSKETA BATEN

Hilaren 16ra arte, paisaien inguruko argazki erakusketa bisitatzeko modua izango da Aramaion, Sastiñan: *Giza paisaiak* du izena, eta Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolako argazki ikasleen lanek osatzen dute. Hilaren 7an, 9an, 12an, 14an eta 16an izango da zabalik, 19:00etatik 20:30era. 44 bat lan dira, eta askotariko paisaiak erakusten dituzte: natura paisaiak, baina baita herri eta hiriotakoak, eta giza gorputza.

DEBAGOIENA

► **Merkatariendako ikastaroak** antolatu dituzte ibarreko merkatarien elkarteek. Erakusleiho apainketa, paketeria, lan arriskuen prebentzioa, pisuen erabilera, negoziazio teknikak… izango dira ikastaroon gaiak, beste batzuen artean. Maiatzean hasiko dira. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 30 90 telefono zenbakira.

ESKORIATZA

► **Helduendako patinaje ikastaroa** antolatu du udalak maiatzeko domeketarako, 10:30etik 12:30era bitartean. Kiroldegiko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, 13. Izena emateko, jo kultura etxera apirilaren 30a baino lehenago. Argibideetarako, deitu 943 71 46 88 telefonora.

ERAKUSKETAK

ARAMAIO

► ***Giza paisaiak*** argazki erakusketa bisitatzeko aukera duzue Sastiñan, honako egunetan: gaur, eguaztena; etzi, egubakoitza, hilaren 12an, 14an eta 16an. Ordutegia: 19:00etatik 20:30era.

ARRASATE

► **Martxe Arana margolariak** bere lan berrienen erakusketa du zabalik Maalako Errabaleko Arregi galerian. Maiatzaren 6ra bitartean dago zabalik.

► ***Aste Santua Andaluzian*** argazki erakusketa dago zabalik Aste Santu osoan, Al-Andalus elkartearen egoitzan, arratsaldez. Andaluziar argazkilarien hainbat lan daude ikusgai.

BERGARA

► **Haur poesia aretoa** zabalduko dute hilaren 19an, eta 30era arte izango duzue bisitatzeko aukera. Kultura etxean egongo da, astegunetan 18:00-21:00 eta zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00. Udal Liburutegiak eta Donostiako Galtzagorri Taldeak antolatu dute. Jolas moduan antolatuta dago, eta helburua da, batez ere umeoi, euskarazko poesia gerturatzea.

ESKORIATZA

► **Errepublikaren eta Espainiako gerraren** inguruko erakusketa egongo da zabalik apirilaren 18tik maiatzaren 2ra bitartean, kultura etxean. Astelehenetik zapatura, ordutegia da 17:30etik 20:30era bitartean; domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era bitartean.

OÑATI

► **Xabier Ubeda argazkilariaren** Polaroid lanen erakusketa zabalduko dute gaztelekuan apirilaren 16an. Maiatzaren 2ra arte izango duzue bisitatzeko modua, 17:30etik 20:30era. Esperimentazioa du gustuko Ubedak. Erakusketa honetan, kaleak, jendea, eguneroko bizitza… irudikatu ditu.

Zinema

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Thirteen
Egubakoitza, apirilak 16, zinekluba: 20:30.

Cuando menos te lo esperas
Apirilak 17 eta 18, zapatua eta domeka: 19:00, 22:00.
Apirilak 19, astelehena: 20:30.

Bahía mágica
Apirilak 18, domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Big fish
Eguena: 19:30, 22:30.
Zapatua: 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.

Monster
Egubakoitza: 19:30, 22:30.
Domeka, astelehena eta martitzena: 19:30.

La última noche
Apirilak 15, zinekluba: 20:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

Mi vida sin mí
Apirilak 15, eguena, zineklub saioa: 20:00.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Scary movie 3
Eguena: 19:30, 22:15.
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Hermano oso
Eguena: 19:30, 22:15.
Egubakoitza zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Océanos de fuego (Hidalgo)
Egunero: 20:00, 22:30.

Fanfan la tulipe
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Hermano oso
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

La pasión de Cristo
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

El abrazo partido
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Scary movie 3
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Dúplex
Egunero: 19:45, 22:30.

Peter Pan, la gran aventura
Egunero: 17:30.

Los chicos de la lluvia
Egunero: 17:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Dúplex
22:45.

Mystic river
17:15, 20:00, 22:30.

Alex & Emma
22:45.

Peter Pan: la gran aventura
17:15, 20:00.

21 gramos
17:15, 20:00, 22:30.

Océanos de fuego (Hidalgo)
17:20, 19:50, 22:35.

Scooby doo 2
16:30, 18:30, 20:30.

Y entonces llegó ella
22:30.

La mala educación
17:15, 20:00, 22:30.

Hermano oso
16:30, 18:30, 20:30.

Fanfan la tulipe
16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Scary movie 3
16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Glup (euskaraz)
Egunero: 17:30.

La mala educación
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Nicotina
Egunero: 17:30, 22:30.

Lejano (Uzak)
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Cleopatra
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cuando menos te lo esperas
Egunero: 20:00, 22:30.

El principio de Arquímedes
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Vidas ajenas
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

La joven de la perla
Egunero: 20:00.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

Hermano oso
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Peter Pan: la gran aventura
16:45, 19:30.

La pasión de Cristo
17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

Kill Bill
22:20, 00:45.

Scooby doo 2
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:45.

Océanos de fuego (Hidalgo)
16:25, 19:15, 22:10, 01:00.

Torque
16:00, 18:00, 20:00.

Km. 666
16:10, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

Cold mountain
22:00, 01:00.

Scary movie 3
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Fanfan la tulipe
16:05, 18:10, 20:10, 22:10, 00:45.

Gauerdiko saioak, eguaztenetik domekara.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Torque
12:15, 16:45, 18:45.

Gothika
00:45.

Scary movie 3
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Kill Bill
12:15, 16:15, 18:20, 20:40, 22:50, 01:00.

Lost in translation
21:00, 22:50, 00:40.

Océanos de fuego (Hidalgo)
12:15, 16:45, 19:15, 22:00, 00:45.

El gato
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Hermano oso
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Peter Pan: la gran aventura
12:15, 15:45, 18:05, 20:15, 22:30.

Y entonces llegó ella
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Club desmadre
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Big fish
20:05, 22:25, 00:50.

El Cid, la leyenda
12:15, 16:30.

Doce en casa
12:15, 16:10, 18:10.

Los Reyes Magos
12:15, 16:20.

Vidas ajenas
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Km. 666
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

La pasión de Cristo
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Scooby doo 2
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

Gauerdiko saioak, eguaztenetik domekara.
Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La mala educación
12:10, 17:15, 19:45, 22:10, 00:30.

Peter Pan: la gran aventura
12:10, 17:00, 19:30.

Gothika
22:00, 00:30.

Hermano oso
12:00, 16:00, 18:00, 20:15, 22:15, 00:30.

Kill Bill
20:20, 22:45, 01:00.

La pasión de Cristo
12:00, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Y entonces llegó ella
12:25, 16:00, 18:10, 20:30, 22:40, 00:45.

Club desmadre
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Dúplex
22:15, 00:30.

Honey
12:25, 16:15, 18:15.

Vidas ajenas
12:20, 16:00, 18:10, 20:20, 22:45, 01:00.

Scary movie 3
12:15, 16:10, 18:30, 20:30, 22:45, 00:45.

Océanos de fuego (Hidalgo)
12:00, 16:30, 19:20, 22:15, 01:00.

Scooby doo 2
12:10, 16:00, 18:00, 20:00.

El gato
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:40.

Gauerdiko saioak, eguaztenetik domekara.
Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Mystic river: ●●●●● / ***La mala educación:*** ●●●● / ***Big fish:*** ●●●● / ***La joven de la perla:*** ●●●● / ***Cold mountain:*** ●●● / ***Kill Bill:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

PETER PAN. LA GRAN AVENTURA

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: P.J. Hogan.
AKTOREAK: Jason Isaacs, Jeremy Sumpter, Rachel Hurd-Wood.

Argi eta garbi erakutsi zuen P.J. Hogan zuzendari australiarrak *La boda de Muriel* eta *La boda de mi mejor amigo* filmekin talentua zuela. Orain, *Peter Pan. La gran aventura* bere balioaren baieztapena izan da. Peter Pan haur-literaturan izan den pertsonaia garrantzitsuenen artean dago; Jame M. Barrie idazleak hainbat idatziren bitartez, pertsonaia honen inguruan istorio konplexu, erakargarri eta bitxia sortu zuen. Istorioan, askotariko tonu eta sentimendu motak nahasten dira: abentura, fantasia, umorea, zeloak, krudelkeria, samurtasuna, bakardadea, tristura eta melankolia erabiltzen ditu hitz egiteko haurtzaroari buruz eta haurtzaroa alde batera uzteak dakarren ilusio eta amets egiteko ahalmenaren galerari buruz.

Peter Pan zinemara egokitzea ez da lan erraza, baina kasu honetan esan beharra dago zuzendariak ederki islatzen duela Barrieren mundua eta honek sortutako pertsonaien ezaugarriak, eta hori egiteaz gain, egoera eta pertsonaia berri batzuk ere aurkezten ditu: begibakarra eta egurrezko hanka duen papagaiak grazia handia du. Irudiak bizitza eta magia handikoak dira eta XIX. mendeko bukaerako edo XX. mende hasierako Londres edo Peter Pan bizi den uhartea birsortzeko eta istorioaren toles eta gatazka guztiak azaltzeko gauza dira. Zuzendariak badaki arintasuna eta erritmo bizia erabiltzen, filmari ikusgarritasuna eta abentura zentzua eta kutsu magikoa ematen eta, honekin batera, badu denbora ere pertsonaien marrazki zehatza egiteko eta istorioaren alde dramatikoa azalera ateratzeko. Txikiagoak diren haurren arduragabetasunarekin batera, Wendy-ren eta Peter Panen artean sortzen ari diren sentsualitatez beteriko harremanak ditugu: Peter Pan-ek ez du inoiz hasi nahi eta, ostera, Wendy konturatzen da ezin dela denbora gelditu eta gizakia, nahi eta nahiez, aurrera egin eta eboluzionatu behar duela. Hori dena azaltzeko abentura ez da gelditzen, filma erritmoz eta ekintzaz beterik dago, baina benetako abenturetan gertatzen den bezala, gertakizun bakoitzak baditu ondorioak, eta horrela, pertsonaiak aberastuz joango dira eta horiekin batera istorioa ere aberasten da.



ANTONIO ZABALA

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. /Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Koldo Elizalde 90 m². Ondo.
• Zabalotegi 60 m². Eguzkitsua.
• Bolu 75 m². Egoera onean.
• Zubiaurre 68 m². Ganbara 20 m².
• Alkabieta 88m². Terraza 58m².
• Matxiategi 63 m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kakatuta. Garajea aukeran.
ETXEBIZITZAK ERRENTAN
Arrasate:
• Erdialdean. 114 m². Berria.
PABILIOIA SALGAI
Bergara:
• 660 m². Hornituta.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. 63 metro koadro dituen etxebizitza saltzen da. 652 70 57 91.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai. 80m². Hiru logela, egongela. Gas naturaleko berogailua. Bizitzera sartzeko gertu. Deitu 17:00ak eta 20:00ak artean. Telefonoa: 617 58 45 22.

Arrasate. Apartamentua salgai Maalako Errabalan. 626 53 56 30.

Arrasate. Erdialdean, 70m². Prezio interesgarria. Deitu 19:00etatik aurrera. 651 59 64 55.

Arrasate. Etxebizitza salgai, Erguin auzoan. 2 gela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. Eguzkitsua. 647 29 93 44.

Arrasate. Etxebizitza salgai, Otalora kalean. 12 urteko eraikina da, eta 80 metro koadro ditu. Hiru gela, egongela, sukaldea, bi komun eta ganbara. Igogailuarekin. 295.000 euro. 690 18 11 80.

Arrasate. Olarte kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Prezio interesgarria. 656 75 71 96.

Arrasate. Udalaitz Dorrean etxebizitza salgai. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 649 16 87 15.

Arrasate Malvinas auzoan 105 metro koadro dituen duplexa saltzen da. 260.000 euro. Deitu 21:00etatik aurrera. 945 44 54 27.

Aramaio. Etxebizitza salgai. 63 metro koadro. Telefonoa: 652 70 57 91.

Benidorm. Apartamentua errentan ematen da. Guztiz jantzita. Garajea. Hondartzatik gertu. 945 29 33 80.

Bergara. Duplexa salgai, 90 metro koadro ditu. 605 72 85 31 edo 615 79 41 02.

Bergara. Etxebizitza salgai San Lorentzon. 699 18 75 68.

Bergara. Etxebizitza salgai. Telefonoa: 605 72 85 31 edo 615 79 41 02.

Jaca. Apartamentua salgai Jacan. 943 76 58 39 edo 669 53 97 03.

Salou. Apartamentua ematen da errentan hondartza ondoan. Novelty eraikina. Jantzia. Aire girotua, igerilekua eta garajea. 943 81 42 38 edo 629 98 98 99.

Soraluze. Etxebizitza salgai. Garajearekin elkartuta. Guztira, 140 metro koadro. 656 78 07 48.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate ondoan. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela. Deitu 19:00etatik aurrera. 652 70 97 79.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da Udalpe kalean, Erguin auzoan. 943 71 67 43 edo 630 27 46 09.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da, leku politean. Ikasleentzat egokia. 943 79 18 95.

Bergara. Lau logelako etxea. Deitu gauez. 943 76 70 95.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso-oso gertu. 670 37 71 03 edo 945 25 91 74.

Conil (Cadiz). Apartamentua alokatzeko daukat Bateles hondartzatik 50 metrora. Guztiz hornituta. Telefonoa: 680 44 26 68.

Conil (Cadiz). Apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta aparkalekua ditu. 653 73 34 57.

Conil (Cadiz). Apartamentua errentan ematen da hondartza ondoan, Carril de la Fuente kalean. 680 44 26 68.

Donostia. Etxebizitza emango nuke errentan Antiguo auzoan. Uztailerako eta abuzturako. 656 71 06 09.

Donostia. Etxebizitza emango nuke errentan Donostian uztailerako. 943 76 50 63.

Eskoriatza. Etxebizitza errentan ematen da. 943 71 48 36.

Eskoriatza. Logelak ematen dira errentan. 943 71 48 36.

La Barrosa-Chiclana (Cadiz). Bi apartamentu errentan. Urbanizazio berrian. Leku zoragarria. Hondartzatik oso-oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Nafarroa. Lizarratik gertu, Urbasa azpian, etxe bat errentan ematen da, Aste Santuan. 943 03 75 88.

Peñiscola. Apartamentua errentan ematen da. Guztiz jantzita. Garajea. Hondartzatik gertu. 945 29 33 80.

Peñíscola. Apartamentua errentan ematen da Aste Santurako. Guztiz hornituta. Itsaso ondoan dago. Maiatzean, ekainean edo uztailean alokatuz gero, prezio berezia. Telefonoa: 610 87 83 57 edo 943 77 19 09.

Salou. Hondartza ondoan dagoen apartamendua dago errentan. Jantzia. Aire girotua, igerilekua eta garajea ditu. 943 81 42 38.

Vera (Almeria). Apartamentua ematen da errentan hondartzadun naturista-gune batean. Telebista, garbigailua, eta abar. Igerilekua. Deitu arratsaldez. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 943 53 21 82.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Jesus. 943 53 21 82.

Debagoiena. Baserri bat erosi edo epe luzerako errentan hartu nahi dugu. 943 77 16 72 edo 650 24 41 37.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan hartzeko lagun bat behar dut. 699 71 34 20.

Aretxabaleta. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 699 71 34 20.

Arrasate. Bi lagun behar dira etxebizitza osatzeko. 180 euro. 605 72 75 37.

Bergara. Etxebizitza batean logela bat dut errentan emateko. 678 37 51 92.

Debagoiena. 60 urteko gizon bat beste batzuekin bizi izateko gertu. Telefonoa: 652 76 95 12.

Debagoiena. Logela bat hartuko nuke errentan, edo etxebizitza bat osatzeko. 609 46 07 07.

Eskoriatza. Logela errentan emango nuke etxebizitza berri batean. Telefonoa: 635 74 24 75.

ARRASATE

ESPERIENTZIADUN ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. 651 70 80 15

BERGARA

AROZTEGIRAKO LEHEN MAILAKO OFIZIALA BEHAR DA.
CV: 14 P.K., 20570 BERGARA
INFO.: 615 73 70 87

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai, Araba etorbidean. 20 metro koadro ditu. Telefonoa: 943 79 69 83.

Aretxabaleta. Garajea salgai Araba ibilbideko 27an. 20 m². Itxia. Telefonoa: 943 79 69 83.

Arrasate. Musakola auzoan garaje itxia salgai. Amuebladora Mondragonesa azpian. Auto batentzako tokia. 945 44 54 19.

Bergara. Garajea salgai Koldo Eleizalden. Telefonoa: 660 84 39 08.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje plaza txiki bat ematen da errentan Super BM dendaren gainean. 649 16 87 15.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bolun garajea hartuko nuke errentan. 679 86 51 36.

Bergara. Zubiaurren edo Ozaetan garaje itxia hartuko nuke errentan. 679 62 69 64.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Bergara. Ozaetan lokala saldu edo errentan ematen dut. Komertzio moduan erabiltzeko gertu. Telefonoa: 943 76 31 52.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Txoko eta guzti daukan lokala. Deitu gauez. 943 76 70 95.

ARRASATE

SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA SARA MERENDERUEN
OPOR EGUNAK: Aste santuan: 6 egun Abuztuan: 3 aste Gabonetan: 10 egun
943 77 15 86 Edurne

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume euskalduna behar da ume bat zaintzeko. Telefonoa: 943 76 60 73.

Aretxabaleta. Neska edo emakume arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. 656 74 81 61.

Aretxabaleta. Neska edo emakume arduratsua behar dut umeak zaintzeko. 943 71 20 57.

Arrasate. Lorezain lanetarako pertsona bat behar da. Trukean, baratzerako lursail bat izango luke. Telefonoa: 627 34 76 24.

Arrasate. Pertsona behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 79 12 48.

Bergara. 25 eta 35 urte arteko neska arduratsua behar da etxea garbitzeko. Erreferentziaduna. Telefonoa: 650 13 36 85.

Bergara. Edadetu bati etxeko lanak egiteko norbait behar da. 626 00 74 08.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 75 18.

Arrasate. Mutil atzerritar bat lanerako prest dago. Garbiketa lanak egiteko, sukaldariren bati laguntzeko edo edadetuak zaintzeko. 666 83 21 95.

Arrasate. Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia dauka. 696 11 01 94.

Arrasate. Neska gaztea dendak garbitzeko gertu. Yerey. 680 85 56 85.

Arrasate. Neska umeak zaintzeko prest Santa Marina edo Musakola inguruan. Susana. 658 71 66 54.

Bergara. Emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 639 76 80 99.

Bergara. Emakumea gertu goizez etxeko lanak egiteko. 943 03 45 82.

Bergara. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko, arratsaldeetan. Telefonoa: 653 71 79 03.

Bergara. Pertsona edadetuak zainduko nituzke arratsaldeetan. 696 84 19 51.

Debagoiena. Basoak garbitzen ditut: belarra moztu, eta abar. Iker. Telefonoa: 635 70 05 35.

Debagoiena. Emakume bat gertu dago etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko, eta etxean bertan bizitzeko. 941 21 00 07.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Etxeko lanetan, adineko pertsonak zaintzen... 620 51 34 25.

Debagoiena. Emakumea prest etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Telefonoa: 660 78 00 73.

Debagoiena. Mutil bat eskaintzen da edozein lan egiteko. Arkaitz. 943 76 71 93 edo 686 28 09 39.

Debagoiena. Mutil gazte euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18.

Debagoiena. Mutil gaztea lanerako gertu. Arkaitz. Telefonoa: 943 76 71 93 edo 686 28 09 39.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Nagore. Telefonoa: 636 63 90 60.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Latin eskolak hartuko nituzke. Lorea. 649 57 12 97.

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 635 70 88 88.

Arrasate. Ingeleseko eskolak emango nituzke. 943 79 86 28.

Bergara. Enpresa ikasketetan lizentziadunak matematika eta kontabilitate eskolak ematen ditu. Telefonoa: 943 76 49 82.

Bergara. Ingelesezko eskolak ematen dira. Maila guztietan. 943 76 31 72 edo 605 76 32 72.

Zientzietan lizentziatua den gazte batek laguntza eskolak emango lizkieke Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoko ikasleei. Arrasaten edo Aramaion. 943 79 94 09 edo 669 94 66 13.

ESKORIATZA

ALDATZ TABERNA ESKUALDATZEN DA. SUKALDEA ERABILTZEKO AUKERA. UNIBERTSITATE ONDOAN. 635 71 47 70

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen XSara automobila salgai. HDi VTS. 2002ko uztailekoa. 22.000 km. Full Equip, ordenagailu eta guzti. 11.400 euro. 667 85 99 83.

Citroën Xantia SXV salgai. 110 zaldi. 108.000 kilometro. Beti garajean. Gehigarriekin. Deitu arratsaldeko 19:00etatik aurrera. 943 76 52 71.

Citroën Berlingo 2.000 HDi autoa salgai. Hiru urte. 70.000 km. Lotarako gertatua. 11.000 euro. Telefonoa: 615 74 31 33.

Ford Fiesta 1.4 saltzen da. 14 urte ditu eta oso ondo zainduta dago. 1.200 euro. 606 19 89 56.

Galloper Santamo monobolumena salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Prezio interesgarria. Telefonoa: 943 79 47 43.

Hergo 450 karabana salgai. Urte gutxi. Oso ondo dago. Idoia. Telefonoa: 649 30 95 20.

Honda CR 250 motoa salgai. 1996koa da eta ondo zainduta dago. Aurreko gurpil-azalak (kubiertak) eta pastillak berriak ditu. 2.550 euro. 605 74 52 02.

Nissan Micra 1.0 16 V salgai. Aire poltsa, aire egokitua. 2002ko ekainekoa. 2005era arte Nissan garantia. 680 91 60 69 edo 617 58 45 22.

Peugeot 306 XR 2.0 HDI autoa salgai. 93.000 kilometro. Egoera onean. 637 83 18 45.

Peugeot 306 XSI 2.0 autoa salgai. 5 ate. M-SG. 133.000 km. Beti garajean. Telefonoa: 657 79 89 44.

Renault Express furgoneta salgai. Mistoa da. Telefonoa: 660 84 39 08.

Saab 900 2.3 I autoa salgai. Berde iluna, 1994. urtekoa. 170.000 kilometro ditu, gurpil berriak eta ondo zainduta dago. 943 79 40 44 edo 626 94 16 75.

Seat Cordoba 1.6 autoa salgai. Gasolina. 100.000 km. 3.155 euro. 686 39 47 02.

Suzuki GS 500 E motoa salgai. 1991koa. Urdina. Ondo dago. 1.200 euro. Telefonoa: 659 70 44 64.

Suzuki GS 500E motoa salgai. 42.000 km. SS-AP. Beltzmorea. Osagarriak. Oso ondo dago. 658 74 42 70.

Timberjack 240 arrastradorea salgai deforestazioak egiteko. Aukera ona. 19:00etatik aurrera deitu. 639 64 16 37.

Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 315. 1999koa. Oso egoera onean. 677 84 94 22.

Voyager autoa salgai. SS-AT. 652 72 32 81.

Yamaha WR 400 motoa salgai. Ondo zainduta dago. Gehigarriak. 659 04 20 99.

Yamaha XJ 900 motoa salgai. 1999koa da, beti garajean egon da eta oso ondo zainduta dago. Hiru maleta opari. 4.000 euro. 665 71 77 96.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Artzain-txakurkumeak salgai. Migel Angel. 943 76 33 78 edo 680 55 17 65.

Txakurkumeak salgai, Border Collie arrazakoak. 651 70 94 32.

703. EMAN

Txakurkume bi emateko dauzkat. 658 71 97 03 edo 609 67 97 81.

Txakurkumeak. Bi txakurkume ar emango nituzke opari. 658 71 97 03 edo 609 67 97 81.

Txakurrak, hainbat arrazatakoak, adoptatzeko. Fox terrier bat, fox terrier nahasketa bat, hiru arratoi txakur, artzain txakur nahasketa bat, setter ingeles bat. Axen Garitano. Elurra txakurtegia. 679 19 77 56.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak. Logelakoak: Armairua, bi ohe handi, gaumahaia eta komoda. Oso egoera onean. 670 41 40 20.

Apalak eta bi salmahai salgai. 669 15 85 52.

Bideoa salgai. Panasonic markakoa, ia berria, 170 euro. 943 53 21 82.

Bideokamera baten piezak salgai: objektiboa, mikrofonoa, bisorea eta argi-babeskia. Canon XL1S da kamera. Estreinatu barik. Prezio onean. 667 02 64 87.

Bideokamera baten piezak saltzeko dauzkat: objektiboa, mikrofonoa, bisorea eta argi-babeskia. Canon XL1S da kamera. Ia estreinatu barik. 667 02 64 87.

Bideokamera salgai, Panasonic markakoa. Oraindik berria dago. 200 euro, negoziagarriak. 943 53 21 82.

Egurrezko sukalde-berogailua salgai. WANSLER etxekoa. 150 litroko ur depositua. Martxan jartzeko osagarriak. 2 urte. 666 55 41 12.

Ezkon soineko bat salduko nuke. Devota & Lomba etxekoa da. Deitu gauetan. 619 21 16 07.

Hozkailu-mostradorea eta zurezko apalak salgai. Prezio ona. Deitu 15:00etatik 15:30era eta 22:00etatik 22:30era. 656 75 52 28.

Kanping denda familiarra eta 111 X 96 neurriko karroa salgai. 943 79 55 42.

Karroa, autoendakoa, salgai. Deitu gauez. 943 76 70 95.

Kayaka salgai. Wit-Pit Perception modeloa. Ondo dago. Alex. 649 01 12 28.

Logela eta sala salgai bi oherekin osorik, baita salako altzariak ere. Jose Mari. 943 76 53 16.

Santa Ana elkartean bazkide plaza bat salgai. 609 35 32 88.

Ur bizietako piragua. Whitpit modeloa, egoera onean. Alex. 649 01 12 28.

803. EMAN

Ontzi garbigailua emateko daukat. Nire etxetik pasatuz gero, har dezakezu. Aspes VJ-6-E. Aitor. 943 79 66 00.

807. AURKITU

Aretxabaleta. Erloju bat aurkitu dut AZBEko autobus geltokiaren parean dagoen paseoan. 656 74 81 61.

Belarritakoa. Arrasateko Legarre plazan aurkitu dute. Udaltzaingora eraman dute.

Belarritakoa aurkitu dute Arrasateko Zarugalde kalean, "Tijeras" etxe inguruan. Borobila da, 7 zirkonita zuri ditu eta "klik" sistemaz eusten da. Galdu duena Udaltzaingora joan dadila, han utzi dutelako.

Bergara. Martxoaren 19an argazki batzuk aurkitu nituen autobus geltokiaren pareko aparkalekuan. Galdu dituenak dei dezala. Telefonoa: 656 71 16 64.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Ehiza. Argentinan bost egunez ehizan egiteko aukera, maiatzean. 180 euro, guztia barne. (Egoitz). 696 76 38 42.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

AIPAGARRI

Manex Agirre

ARAMAIO

Manex Agirre aramaioarra Arabako Bertsolari Txapelketako finalerako sailkatu zen joan den zapatuan Laudion jokatutako finalerdian. Apirilaren 25ean, domeka, jokatuko da finala, Gasteizko Printzipal antzokian. Bost bertsolari izango dira finalean Manex Agirreren ondoan.

Bittor Murgiondo

ARRASATE



Bittor Murgiondo izan zen joan den domekan Zegaman egindako Gipuzkoako ezti txapelketako irabazle. Seigarren Erlezain Eguna ospatu zen herri horretan. Guztira 21 ezti lehiatu ziren eta Murgiondorena izan zen onena. Arrasaten bizi da aspaldidik Murgiondo, baina Mutiloan jaioa da.

Martxe Arana

ARETXABALETA

Arrasateko Arregi galerian margo erakusketa inauguratu zuen joan den egubakoitzean, hilak 2. Apiril osoan izango ditu erakusgai hamasei bat lan. Batez ere, Donostialdeko paisaiak eta loreak margotu ditu, bi teknikarekin: olioa eta *goache*-arekin. Gaur egun Donostian bizi da Martxe Arana.

HILDAKOAK

Andres Gutierrez Lopez. Arrasaten, apirilaren 1ean. 63 urte.

Gregorio Errasti Abarrategi. Arrasaten, apirilaren 1ean. 72 urte.

Mª Karmen Okaranza. Arrasaten, apirilaren 1ean. 74 urte.

Pilar Aranburu Blanco. Bergaran, apirilaren 2an. 90 urte.

Rufino Erostegi Zubia. Oñatin, apirilaren 3an. 74 urte.

Mª Angeles Armiño Zamora. Arrasaten, apirilaren 4an. 89 urte.

Lucio Sanchez Pastor. Arrasaten, apirilaren 4an. 85 urte.

Eleder Teran Fernandez
Oñati • Apirilaren 2a • 2,960 Kg. • **Gurasoak:** Eusebio Teran (Oñati) eta Sonia Fernandez (Oñati). Argazkian, umea bere amaren besoetan.

Lide Billar Lumbreras
Arrasate • Apirilaren 3a • 3,000 Kg. • **Gurasoak:** Josu Billar (Arrasate) eta Lide Lumbreras (Arrasate). Argazkian, umea bere amaren besoetan.

Ane Aiastui Uribetxebarria
Aretxabaleta • Apirilaren 3a • 2,400 Kg. • **Gurasoak:** Angel Aiastui (Oñati) eta Jone Uribetxebarria (Aretxabaleta). Argazkian, umea sehaskan lo.

Leire Aiastui Uribetxebarria
Aretxabaleta • Apirilaren 3a • 2,610 Kg. • **Gurasoak:** Angel Aiastui (Oñati) eta Jone Uribetxebarria (Aretxabaleta). Argazkian, umea sehaskan lo.

ESKER ONA

Jose
Mengual Aguayo

Arrasaten hil zen
2004ko martxoaren 26an,
73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Pilar
Aranburu Blanco

Bergaran hil zen
2004ko apirilaren 2an,
90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Agustin
Mungia Lopez

Arrasaten hil zen
2004ko apirilaren 6an,
65 urte zituela.

Meatz-Erreka elkarteko kideok gogoan izango zaitugu-

URTEURRENA

Francisco
Paris Catalan

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 11n,
13:00ean,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

URTEURRENA

Felix
Garmendia Astarloa

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 11n,
13:00ean,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felipe
De Benito Pura

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 11n,
13:00ean,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jabier
Etxabarri Luquin

Lehen urteurreneko meza
apirilaren 18an, domeka,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	*Deitura ...orpo, ondoan		Erregetza Herri hizk., barrabila		Jarraitzaile	
	Piraten edaria Ihi (Bizkaian)					
* Izena Beterre	Doilor Iratze					
Abantzu Musika tresna	Onomatopeia Dastatu				Jakin-mina duena	
			Iparretarrak Berniz distiratsu			
Zein Suari dariona		Bi gehi bi Hori (Bizkaian)				
	Burdinola Lerde			Roentgen Doi		
Aldatzera behartu	Kalkulatzeko taula Gehiegi					
Solas-gaia Kulpa			Txo Hidrogenoa			
		Hasi aditzaren infinitiboa				

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ERMUKO EZTABAIDAK

Txindurritarrak bizkaitarrista aundixak ziran. Beren goixan, baiña, oso karlista zan familia bat bizi zan. Dana dala, oso ondo eruaten ziran eta umore aundixakin gaiñera, alkar zirikatuaz. Beiñ baten, deitu zetsen goikuak:

- I, Txindurri, ointxe goiazak zuen bandera jatera: porru patatak txirixuakin.

-Txindurrik:

- Bai, gu be ointxe goianaz karlisten banderia jatera: arrautza frijituak piparrekin.

ONDO JATEN DANIAN

Plaentxiar batzuk etorri dira konbidau Eibarrera. Maixan jarri orduko asi dira eibartarrei adarra joten.

- Eztaok emen ondo joango dan itxurarik, palilluak be zapalak ipiñi dozuez. Guk biribillak jaukaguz.

- Gaiñera bikarbonatorik be eztozue ipiñi, ta barriz, ondo jaten danian, bikarbonatua derrigorrezkua dok aixiak botatzeko.

Orduan eibartarrak:

- Ondo jaten danian eztok egoten aixientzako lekurik.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Zein herritan dago Jakion?

Jakion Debagoieneko baserrietako produktuez hornitzen den kontserba-enpresa da. Hainbat klasetako berdurak eta frutak potetan sartu eta saltzen ditu. Seguruenik izango zenuen pote horietakoren bat dendetan ikusteko aukera, baina asmatuko ote zenuke enpresa bera non dagoen?

- Aramaion
- Antzuolan
- Oñatin
- Leintz Gatzagan

Erantzun zuzena: Leintz Gatzagan.

SOLUZIOAK





ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Kolaboratzaileekin eztabaidak izango dituzu, gauzak zure erara egin gura izango dituzu-eta, inori galdetu barik. Eta jarrera bera izango duzu bikotekidearekin.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Hobekuntzak lanean; izan ere, erabakiak hartzeko botere handiagoa izango duzu. Bestalde, aste ona amodio kontuetan. Azkenik, diru kontuetan ere aste ona: diru sarrera estra izango duzu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Lasai ibili eta ez larritu, hemendik gutxira abian dituzun proiektu guztiak bete egingo dira-eta. Bestalde, atzerrira egin behar zenuen bidaia atzeratu egingo da agiriekin arazoak izango dituzulako.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Berria den edozeri beldur diozu; hori dela eta, lanean gora egiteko aukera gal zenezake. Ez kikildu eta izan ausart, hola jokatuz gero aspalditik buruan dituzun proiektu horiek aurrera eramango dituzu-eta.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Familiakoen eta lagunen exijentziek estutu egiten zaituzte. Bada, egoera horrekin amaitzeko garbi berba egitea duzu onena. Bestalde, lanean aldaketak izango direla-eta urduri ibiliko zara.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Nekatuta zaude, eta horrek eragin lezake lanean hanka-sartzeren bat edo beste egitea. Hortaz, ahalegin zaitez egunerokoak ondo antolatzen eta ardurak beste batzuen esku uzten.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Aldaketak lanean, baina txarrerako; izan ere, zuk uste baino gutxiago ordainduko dizute aurrerantzean. Bestalde, diruarekin hala-hola ibiliko zara, euro asko gastatzen dituzu-eta arropatan.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Sasoi ona buruan zenituen proiektu horiek aurrera eramateko, baina, betiere, lankide edo kolaboratzaileren baten laguntzarekin. Bestalde, nagusiaren esker ona jasoko duzu ondo egindako lan batzuengatik, eta horrek izugarri poztuko zaitu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Anaiaren/arrebaren batek arazoak izango ditu, eta zuk hainbat ardura alde batera utzi beharko dituzu hari laguntzeko. Edozelan ere, tentu handiz ibili, eta inoren gainean ezer esan aurretik haren lekuan jarri.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Jendearekin egon gura izango duzu, bakarrik ez egotearren. Zure buruarengandik ihes egitea ez da soluzioa. Ahalegin zaitez harroa ez izaten eta partekatu zure arazoak lagunekin eta familiartekoekin.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Aprobetxa ezazu bizi izaten zabiltzan une onuragarri hau zure burua promozionatzeko. Bestalde, lanean hobekuntzak izango dituzu, eta, horren ildotik, aisialdirako denbora luzeagoa izango duzu. Azkenik, amodio harreman atsegin, positibo eta pozgarriak.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Bikotekide egonkorra baduzu, zuenak egin du: izan ere, harengandik gehiago espero zenuen, eta utzi egingo duzu. Bestalde, zure ardurei uko egiteagatik hanka-sartze handiren bat egin zenezake eta, are gehiago, lana gal zenezake.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

ASTEBUKAERAKOEGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

EGUENA, 8

Pixkanaka okerrera egingo du eguraldiak. Egun lainotsua izango dugu eguena eta euria egin dezake. Tenperaturak behera egingo du. Haizeak ipar-ekialdetik joko du.

Nafarroako Erribera: Ostarteak.
Errioxa: Ostarteak.
Pirinioak: Ostarteak.

EGUBAKOITZA, 9

Egubakoitza egun euritsua izango da. Tenperaturak behera egingo du eta elurra egingo du 1.000 metrotik gora. Haizeak ipar-ekialdetik joko du, nahiko gogor.

Nafarroako Erribera: Zaparradak.
Errioxa: Zaparradak.
Pirinioak: Elurra.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

11,3º C

ILARGIAREN ALDIAK: APIRILA

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
5	12	19	27

EGUZKIA: APIRILAREN 11A

Sortu 07:32 · Gorde 20:46

URKULUKOURTEGIA

Azken egunotan ez du euri askorik egin, baina hala ere, Urkuluko ur mailak gorako joera hartu du. Joan den astean %95,86 zegoen beteta; aste honetan %97,95.

% 97,9

BEHARREZKOTELEFONOAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 53 47 20
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

EUSKARAZKOHEDABIDEAK

GOITB	943 71 23 96 • goitb@ goiena.com
Goienkaria	943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com
Arrasate Press	943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com
Berrigara	943 76 03 97 • berrigara@goiena.com
Aretxagazeta	943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com
Goibekokale	943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com
Kontuola	943 76 03 97 • kontuola@goiena.com
Txirritola	943 71 25 11 • txirritola@goiena.com
Ze barri?	943 79 86 21 • zebarri@goiena.com
Kontzejupetik	943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Putz	943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Arrasate Irratia	943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Oñati Irratia	943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Sustatu.com	943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde hauen laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza

Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Aretxabaletako Udala
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Elgetako Udala
Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Oñatiko Udala

'Asteleheneko Goienkaria'

Astelehenero kalean!

DEBAGOIENA. Aste bukaeran gertatutako guztia, inork baino lehenago eta sakonago.

KIROLA. Gure kirol taldeek jokatutako partiduen kronikak, sailkapenak, emaitzak...

KULTURA. Musika eta antzerki ekitaldi nagusien kronikak, erakusketak, deialdiak...

Harpidetuz gero, etxean: **0,6 euro***
Egunkari saltokietan: **0,8 euro**

*Urte osoko harpidetza: 25 euro

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

ETA GEHIAGO... Iritzia, zerbitzuak, telebista....

TELEBERRIAK

Umeendako programak nagusi Aste Santuan

Opor garai guztietan gertatzen den bezalaxe, Aste Santuan ere umeendako programazioa izango da nagusi telebista kate guztietan. Hala, ETB1ek umeendako eskaintza berezia izango du apirilaren 18ra arte. Egun osoan zehar marrazki bizidunak eta umeendako pelikulak ikusteko aukera izango dute etxeko txikienek. *Doraemon, Shin Chan, Garfield, Hirukiak, Papirusen abenturak, Sam eta Max, Vicky bikingoa, Heidi* eta *Marco* dira marrazki bizidunetako batzuk. Horiez gain, *Karramarroen uhartea*, *Megasonikoak* eta *Marko Antonio* izeneko pelikulak ere emango dituzte.

ETB telesail bat prestatzen ari da FORTAko kateekin

Televisió de Catalunya (TVC), Telemadrid, Canal 9 eta Euskal Telebista telesail berri bat egiten ari dira Sony Pictures Television Internationalekin batera. *De moda* du izena telesail berriak eta Bartzelonan egiten ari dira grabaketa lanak egunotan. Lluis M. Güell da telesailaren zuzendaria eta aktoreen artean aurpegi ezagunak aurkitu genitzake: Toni Cantó, Diego Martín, Mar Regueras, Melanie Olivares, Patricia Alcocer eta Teresa Gimpera, besteak beste. Espero dute datorren udazkenean hastea telesaila emititzen FORTAko telebista kateetan.

GOITBk eten egingo du ohiko programazioa Aste Santuan

Aste Santuko oporrak bertan ditugu dagoeneko. Goiena Telebistako langileek jai egingo dute apirilaren 8tik 12ra bitartean, biak barne. Hori dela eta, eguneroko ohiko programazioa eten egingo dute. Apirilaren 19an itzuliko dira lanera eta orduan hasiko dira berriro normaltasunez emititzen. Datozen egunotan, beraz, lehen emandako programak emango dituzte Goiena Telebistan: 20:00etan, 21:00etan eta 22:00etan. Gogoratu, baina, apirilaren 19an itzuliko dela programazio osoa. Egun horretatik aurrera, albistegiez gain, ohiko programazioa eskainiko dute.

JASONE MENDIZABAL/ HERRI KOMUNIKABIDEAK KOOPERATIBA ELKARTEKO ZUZENDARIA

"Gure erronka nagusiak banaketa indartzea eta publizitatea lortzea dira"

USOA AGIRRE

Jasone Mendizabal arrasatearra Herri Komunikabideak Kooperatiba Elkarteko zuzendaria da. 'Asteon' aldizkaria argitaratzen du enpresa berri horrek. Sortu berri den enpresaren eta aldizkariaren gainean hitz egin dugu Jasonerekin.

***Asteon* aldizkaria telebista aldizkari berria da. Zein balorapen egiten duzue orain arte?**

Momentuz, oso balorapen positiboa egiten dugu. Banaketa herri aldizkarien bidez egin dugu, batez ere. Baina, beste leku batzutan eskura banatu da, euskaltegien bidez... Iruñako ikastola bateko arduradunarekin hitz egin dugu eta esan digu han ere eskuratu nahi dutela, edukia oso freskoa delako eta gazteen artean hizkuntza lantzeko oso aproposa ikusten dutelako. Norbanakoak ere geroz eta gehiago ari dira deitzen aldizkaria non eskuratu daitekeen galdetuz.

Irakurleen artean, beraz, harrera ona izan duzue.

Hainbat iritzi jaso ditugu epostaz; batzuk zoriondu egiten gaituzte eta beste batzuk kritikoagoak dira. Batek idatzi zigun, esanez, *Asteon* kaleratzea denbora eta dirua galtzea dela, komunikabideen lehentasuna beste leku batean dagoela. Denetariko iritziak jaso ditugu, baina gehiago dira positiboak. Jakin badakigu beste arlo batzuk ere landu daitezkeela, baina publiko orokorrera heldu nahi dugu eta horretarako oso aitzakia polita da telebista. Guk ez dugu asmorik euskarazko prentsan dauden hutsune guztiak betetzeko; *Asteon*-ek bere lekua betetzen du.

Enpresa berri bat ere sortu duzue, Herri Komunikabideak Kooperatiba Elkartea. Zer dela-eta sortu zen?

I.A.

"Momentuz oso balorapen positiboa egiten dugu. 'Asteon'-ek harrera ona izan du"

"Edukia dena delakoa izanda ere, etxeetara ez bagara iristen ez dugu gure helburua lortzen"

Elkarte horretan bederatzi herri komunikabide, Goiena tartean, eta Topagunea dira bazkideak. Enpresak *Asteon* aurrera ateratzea du helburu. Baina, enpresa hori sortzerako orduan bere bazkideen helburua izan zen euskararen normalizaziorako tresna izatea; alde batetik, irakurleari euskarazko produktu berri bat eskaini nahi zaio, eta beste alde batetik, enpresa handiei euskaraz publizitatea egiteko euskarri bat eskaini nahi zaie.

Aurrera begira, zein helburu dituzue Kooperatiba Elkartean?

Momentuz, badirudi *Asteon* gustuko produktua dela. Aurtengo gure erronka nagusiak banaketa indartzea eta publizitatea eskuratzea dira. Momentu honetan ez da ikusten enpresa handien publizitaterik euskarazko prentsan, ez dakigu marka handiak erakartzen. *Asteon*-ek duen zabalkundearekin eskaini dezake aukera bat euskaraz ere marka horietara heltzeko.

Maiatzaren 7ra arte ez da *Asteon*-ik egongo, zer dela-eta?

Etenaldi hori aprobetxatu nahi dugu, alde batetik, edizio sistema berria inplementatzeko eta beste alde batetik, banaketa sistema indartzeko. Momentu honetan nahi duguna da hiriburuetako hainbat leku publikotan *Asteon* aldizkaria eskuragarri jartzea: liburu dendetan eta bestelako leku publikoetan. Maiatzean espero dugu leku horietan guztietan *Asteon* eskuragarri izatea.

Puntu horiek non jartzeko asmoa duzue?

Oraingoz, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñeako hainbat puntutan, saltoki zein tabernatan banatuko dugu aldizkaria. Iparraldean beste modu batean egingo da banaketa, Seaskaren bidez edo. Herrietan herri-aldizkarien bidez banatuko dugu. Hutsuneak hutsune, gure banaketa nahiko zabala izango da maiatzetik aurrera.

Etenaldiak, beraz, ez du edukian aldaketarik ekarriko.

Banaketa indartzea da orain gure premietako bat. Edukia dena delakoa izanda ere, etxeetara heltzen ez bagara ez dugu gure helburua lortzen.

KAMERAAURREAN

"Uste dut, Afrikako lurraldeen ikuspegi ezkorra dugula, estereotipoz betetakoa. Eta egian esan, asko daukagu ikasteko haiengandik, batez ere Afrikako emakumearengandik".

Lola López / Antropologoa eta erizaina
'Berriak' (2004/04/05)

"Kelmerendako oso garrantzitsua da garaipen hau. Azken aldian Manzanok esan dituenak lekuz kanpo utzi gaitu. Txirrindularitza maite dutenei eskaintzen diet garaipena".

Alejandro Valverde / Txirrindularia
'Euskal Herriko Itzulia' (2004/04/30)

TELEBEGI/ Oihana Elorza

Euskal Herriko Itzulia

Oraindik ez dakit zer ikusi ahal izango dugun Aste Santuan telebistan. Esan nahi dut, ez dudala telebista programa ikusi, baina asmatuko nuke zer emango duten. Urteroko pelikulak, adibidez. Gainera, aste hasieran ikusi nuen horietako bat, beraz, kate batzuek aurreratu dute datozen jai egunetan emango duten programazioa. Askori ez zaizkie gustatzen denok ikusi ditugun pelikula horiek, urtero botatzen dituztenak.

Txirrindularitza lasterketak telebistaz ikustea ere ez zaie denei gustatzen. Nahiago dute errepide bazterretik ikusi, txirrindulariak ziztu bizian pasatzen badira ere. Aste Santuko alternatiba izan daiteke, ordea. Euskal Telebistak, esaterako, arratsalde guztietan emango ditu Itzuliko azken kilometroak zuzenean, Marino Lejarreta eta Txomin Perurena adituen komentarioak lagunduta. Zuzenean emango ditu, eguraldi okerrak oztoporik jartzen ez badio, behintzat, hori ere ez da harritzekoa izango-eta. Hala ere, gauetan, eguneko laburpena emango du.

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

Eskaintza
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak
- Bildotsa labean erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Zuhaizti jatetxea

Espoloia 6 / BERGARA
943 76 59 22

Eskaintza
- Eguneko menua, aste barruan
- Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan

Berezitasunak
- Etxeko postreak

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.500 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUAZTENA, 2004ko apirilaren 7a

Atzeskua

USOA AGIRRE

Nagore Igartza/ Diseinatzaile grafikoa

Zer egiten du antzuolar batek Bartzelonan?

Ikasketak egiteaz aparte beste bizitzeko modu bat ikusten ari naiz hemen. Etxe inguruan banituen nahi nuena ikasteko beste eskola batzuk, baina Bartzelonara etortzea erabaki nuen. Etxetik kanpora irten eta beste gauza batzuk ikasteko gogoarekin etorri nintzen.

Bartzelonan, baina, gustura zaude.

Zazpi urte dela nago Bartzelonan. Batzuetan, herriko mendien eta lasaitasunaren faltan sumatzen dut. Baina gustura nago hemen. Mendiak asko gustatzen zaizkit niri, baina hiriak beste gauza batzuk ere ematen dizkit.

Hiritar egiten hasi zara, orduan.

Bai. Egia esan, erdi Bartzelonakoa ere banaiz dagoeneko.

Antzuolako argazki lehiaketan urtero irabazten duzu. Parte hartzeari utzi beharko diozu.

Bai, bai. Parte hartzeari utzi beharko diot jende gehiagok izan dezan aukera. Etxetik kanpo biziz gero, diru aldetik ere larri samar ibiltzen zara eta Antzuolako lehiaketa horretan iturri polita topatu dut. Urtero esaten dut azkena izan behar duela, baina urtero hartzen dut parte.

Hegoamerikan ere izan zara behin baino gehiagotan.

Duela sei bat urte Komite Internazionalistekin Mexikon egon nintzen hilabetez eta nire kontura ibili nintzen beste pare bat hilabetez. Duela bi urte, bi hilabete pasa nituen Brasilen eta beste hilabete bat Bolivian eta Perun.

Nolatan hainbeste bidaia?

Bidaiatzea beti gustatu izan zait asko. Lehenengo aldiz Irlandara joan nintzen 16 urterekin. Eta harrezkero beti eduki izan dut bidaiarako hartxo hori barruan. Bidaiatzen gauza askorekin egiten duzu topo, gauza asko ikusten duzu eta jende berri asko ezagutzen duzu, beti gustatu izan zait gauza berriak ikustea. Nire bizioetako bat hori ere bada.

Hurrengo bidaia nora?

Bada, India bisitatu gurako nuke. Baina oraingoz ez daukat inorako asmorik, dirurik ere ez daukateta.

Behin Txillidaren eskultura erori omen zitzaizun gainera Bartzelonan.

Bai, Bartzelonara iritsi eta urtebetera-edo izan zen. Paseatzen gindoazela Txillidaren eskultura erori zen eta nahiko eskandalu sortu zen momentuan. Baina garbi utzi behar da bera bakarrik erori zela, nik ez nuen bota.

Antzuolara bueltatzeko asmorik bai?

Ez dakit. Horretan ez dut pentsatzen, eta ez dut nahi pentsatzea ere. Oraingoz lanean nabil hemen, eta nekatzen naizenean ikusiko dut nora joaten naizen. Antzuolara, agian.

"Ikasketak egiteaz bat, beste bizimodu modu bat ikusten ari naiz Bartzelonan"

"Lehenengo aldiz Irlandara joan nintzen 16 urterekin. Eta harrezkero beti eduki izan dut bidaiarako hartxo hori barruan"

"Lanean nabil hemen, eta nekatutakoan ikusiko dut nora joaten naizen"

► *Antzuola / 25 urte / Bartzelonan bizi da*

PIPERRAUTSA

Itzulia

Bergara izan du aurten abiapuntu Euskal Herriko Itzuliak, eta ibarrean ibili genituen txirrindulariak astelehenean eta martitzenean. Lazkaon amaituko dute lana egubakoitzean. Honenbestez, denboraldia hasi da berotzen eta bistan jarri zaigu gailurra, Tourra.

Aurten ez da Tourrean izango Jon Odriozola oñatiarra, Kelme bere talde berria kanpoan utzi dutelako azken orduan. Arrazoia, taldekide ohi Jesus Manzanoren adierazpenak drogen erabilerari buruz.

Manzanok esandakoa ikaragarria izan da eta, tamalez, sinesgarria. Ahots mehez baina sarri aipatzen dira horrelakoak txirrindularitzan, eta tarteka azaleratu ere egin dira eskandalu zehatzak: Tom Simpson, Virenque, Pantani... Baina Manzanorenak erakusten du zenbateraino egon daitekeen kimika uztartuta bi gurpileko kirolarekin.

Eta galdera da: ezinbestekoa ote? Denek egiten badute bai, ezin da bat atzean gelditu. Baina, horrela bada, zergatik ez diote denek uzten droga hartzeari? Zer galduko luke lasterketak? Izan ere, muturreraino eraman dira gauzak. Etapa gehienetan, soberan egoten dira kilometro asko. Egun berean sei mendate jarri arren, azkenean erabakitzen da irabazlea. Eta batez besteko abiada izugarria ez da beharrezko ikuskizuna egon dadin. Zergatik ez diogu itzultzen txirrindularitzari bere neurri naturala? Orduan, agian, kirolari normalak ikusiko ditugu berriro itzulietan.

MIKEL IRIZAR

BEGIRATU TXORITXOARI

Eskuratu argazki-kamera, melodia polifonikoak eta koloretako pantaila dituen Siemens MC60 bat

49€ -ren truke*

Euskaltelen kontraturen batean alta emanda.

ROUTER COMUNICACIONES, S.L
Maalako Errebala, 8 behea
Arrasate
Tel.: 943 71 27 81
Fax: 943 71 17 85.

Euskaltel eko Banatzaile Ofiziala

* Euskaltel Hautaketa edo Leihoaren bezeroentzako PSPa. Promozio hau Euskaltel Mugikorren Kontratuan martxoaren 27tik eta apirilaren 17a bitartean egiten diren altentzat da baliozkoa. Muga: 3.000 unitate.